

Manezaundiren kazetaritza: bere berbaldiaren azterketa

ASIER BARANDIARAN AMARIKA¹

0. SARRERA

Euskal kazetaritzaren historian Enrike Zubiri (1867-1942) nafarrak bere ohorezko lekua merezi duela batek baino gehiagok esan eta idatzi izan du azken urteotan. Bere artikuluen zenbait bilduma egin eta hari buruzko hainbat datu historiko aditzera eman izan dira. Baina bere prosa ederra eta aberatsaren azterketa zabalik falta zaigu oraindik. Artikulu honek hutsune hori betetzen hasi nahiko luke.

Euskaraz zein gazteleraz idatzi zuen arren, azterketa honetan euskarazko produkzioari erreparatuko zaio: oparoena izateaz gain, berorren azterketa interesgarriagoa izan daitekeelakoan nago. Beraz, corpusari dagokionez, ondorengo liburuan bildutako artikulua hartuko ditut aintzat:

ZUBIRI, Enrike: *Artikulu bilduma*. Euskal Editoreen Elkarte & Labayru Ikastegia, Bilbao, 1990².

Lan hau burutzeko hauxe da aukeratutako jomuga: berbaldiaren analisi erretorikoa. Ez da, jakina, kontuan har zitekeen jomuga probetxugarri bakarra, baina bai gehien interesatzen zaidana, azterketa linguistikoaz arduratu denik egon badagoelako jada. Gainera, kazetaritza-artikuluak dira Manezaundi argitaratzen dituenak eta artikuluak, erretorikaren galbahetik pasatu nahi baditugu, ondorengo mekanismoekin erlazonaturik daude: *expositio*, *argumentatio* eta, nahiz eta neurri txikiagoan, *narratio*-rekin³ eta hori egiteke dago oraindik.

¹ Nafarroako Unibertsitatea. Universidad de Navarra. Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedra.

² Artikulu horiek helbide hontean ere kontsultagai daude: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/ManezaundiArtikuluak.htm>

³ SPANG, 2005, 157.

Bestalde, hemen kontuan hartuko diren testuek komunikazio-prozesuaren erakusgarriak edota elementuak biltzen dituzte beren barruan: igorlea (komunikatzailea), kanala, mezua, testuingurua eta hartzailea (edota irakurlea)⁴. Igorlea edota komunikatzailea Manezaundi bera dugu. Kanala idatzizko testua da. Artikuluok argitaratuak izan ziren garaian, zenbait argitalpen izan ziren Manezaundiren mezuen “kanalak”: euskaraz Iruñeko *La Voz de Navarra* aldizkaria, Donostian ateratzen zen *El Día* egunkaria eta Baionako *Eskualduna* astekaria, besteak beste. Bere mezua, artikuluen edukia bera, xehekiago aztertzeko asmoa daukat, hortaz. Mezuaren testuingurua orduko egoera soziala eta kulturala dugu alderatuta, gaur egungo egoerarekin, alor zehatz batzuetan antzekotasunak izan ditzakeena. Hartzaileak, orduko euskaldunak ziren, lehenengo eta behin, baina gaur egungoak ere haren hartzaileak gara edo izan gaitezke, Rosa Miren Pagolak paratu zuen bildumari esker hori errazago egin dakigukeelako eta agian zenbait gaik gaurkotasanari eusten diotelako.

Egia da, ekintza komunikatibo⁵ edota hizketa-ekintza⁶ honen elementu eta fase guztiak ezin ditugu beren osotasunean aztertu; izan ere, horretarako ekoizpen hauen hasierako hartzaileak elkarrizketatu beharko genituzke eta hori, bistan denez, gure eskutik at dago zeharo, lan hauek XX. mendeko hogeita hamarreko hamarkadan argitaratuak izan zirelako. Baina gure esku ditugun datuekin berbaldi erretoriko hauen bidez zer nolako pertsuasio-estrategia⁷ erabiltzen diren aztertu ahal izanen dugu, neurri batean behintzat.

Arestian “kanala” delakoa aipatua izan da, argitalpen batzuk adierazteaz batera. Zilegi bekit sarrera honetan zehaztasun bat: agian aztertu nahi ditudan testuen generoa, iritzi-artikuluak, uste baino eragin handiagokoa izan daiteke. Izan ere, iritzi artikulu batek edukia baldintzatzen du neurri handi batean⁸. Baina hori azterketan bertan frogatua izango delakoan nago.

⁴ Komunikazio-prozesuaren elementuak dira hauek: “Los principales elementos implicados en el proceso son: Emisor-codificador [...]. Código [...]. Mensaje [...]. Canal [...]. Contexto [...]. Receptor-decodificador [...]. Filtros [...]. Retroalimentación o feedback”, BALLENAO PRIETO, 2006, 36-37. Edota Rudolph F. Verderber-ek adierazten digunez: “This communication process involves the following interrelated elements: the context of the communication, the participants, the messages being communicated, the channels through which the communication occurs, the presence of absence of “noise”, and the verbal and nonverbal responses known as feedback”, VERDERBER, 1993, 5.

⁵ Kurt Spang-ek esaten duenez, “la generación del significado de la comunicación se realiza siempre en tres ámbitos: en primer lugar, a través de la interacción de todas las instancias del modelo de comunicación y bajo las condiciones del marco total comunicativo y contextualizante. En segundo lugar, el significado surge a través de la interacción del comunicador con su texto. [...] Finalmente, el significado surge de la interacción de la comunicación realizada”, SPANG, 2005, 26-27.

⁶ Nahiz eta testu idatzia izan, hizketa ekintzat har daiteke. Hizketa-ren ordezkoa izaten da sarritan idazketa. Ikuspegi honetatik “hizketa ekintzak” edo “ekintza ilokuzionarioak” idatziz ere egintze dira: “Realizar un acto ilocurionario es comprometerse en una forma de conducta gobernada por reglas”, SEARLE, 1977, 15.

⁷ Kurt Spang-ek gogorarazten digunez, Cicerón-en garaian pertsuasiorako hiru estrategia-mota zeudela ikusi zuten: *docere*, *delectare* eta *movere* direlako kategoriak, hain zuzen (SPANG, 2005, 88).

⁸ Bai entseguan bai iritzi-artikuluetan –askoren ustez behintzat– argitasuna eta edertasuna bilatzen dira eta biotan egilearen ikuspuntua nagusi da: “El ensayo, como el artículo, entra de lleno en la prosa didáctica y más concretamente en la literatura de las ideas. Uno y otro renuncian a la erudición y a la cita puntual; los dos tienen pretensión de claridad y de belleza; en ambos importa primordialmente el punto de vista del autor, el sello personal”, FERNÁNDEZ DE LA MORA, 1955, XIV.

Nire hipotesia hauxe da: eduki estetikoaren duten berbaldi hauen bidez, egileak saiatzeko irakurleak pertsuaditzen nortasun-ezaugarri batez⁹ jakitun izan dadin, edota nortasun horren kultura-alderdiak baloratu ditzan. Ez dut gehiago zehaztu nahi, gehiegi zehazteak deus frogatu ezin izatea ekar lezakeelako. Baina bai adieraziko dut artikulu honen helburu nagusia zein den: Manezaundiren berbaldi identitarioaren alderdi erretorikoa aztertzea.

Azkenik, esan dezadan honako hau: azterketa erretorikoa den arren, egoki deritzodala José María Díez Borque-k testuak aztertzeko aukeratutako eskemari¹⁰. Badakigu honelako metodoak edota eskemak hutsezinak ez direna, baina orden jakin bati edota printzipio batzuetan oinarritutako metodo bati jarraitzea “flotagailu” onuragarria izan daitekeela iruditzen zait.

1. KANPO-FASEA

Lehenengo fase honetan corpus honen markoa zehazten ahaleginduko naiz¹¹.

Enrike Zubiri “Manezaundi”ren bizitza eta lanei buruz zenbait argitalpen eta erreferentzia dira hortik zehar¹², eta ez dagokigu orain beraietan sakontzea, hau azterketa erretoriko bat izanen delako, ez historikoa.

Hasteko, eta bere lana kokatzearen, badugu erantzun beharreko galdera bat: Berak bazeukan bere bizimodua konponduta: lanpostu finkoa zeukan Iruñeko “Artes y Oficios” pintura-eskolan. Langintza hartan lortutako prestigioa ere ez zen nolana hiko. Zer dela-eta, orduan, euskaraz idaztea zenbait argitalpenetan?¹³, hizkuntza batekiko zaletasun hutsak bultzatuta?, ba ote

⁹ Pertsuasioa, modu esplizituan behintzat, sarritan ez da ekintza komunikatiboaren helburu behinena. Batzuetan, kontziente edo inkontzienteki zeharkako helburua izan ohi da. Gainera, nortasunari buruzko pertsuasioa oso kontu korapilatsua eta aurpegi-aniztuna izan daiteke. Totoricagüenak adierazten duenez, “Identity can be defined as a person’s source for giving understanding and a constructed meaning to life experiences and events. Meaning tends to be organized around a primary or core identity that frames other identities, loyalties, and interests. The various identities that one person has are not necessarily in conflict with each other; rather they may be complementary”, TOTORICAGÜENA, 1999, 285.

¹⁰ Bere *Comentario de textos literarios. Método y práctica* izeneko liburuan jorratu eta azaltzen du, batez ere. Ikusi in DÍEZ BORQUE, 1998.

¹¹ Hona hemen José María Díez Borque-k zehazten diguna fase honetarako: “Situación un texto en su marco es localizarlo y establecer su filiación según unas coordenadas precisas. Supone esto establecer el período, época, movimiento y fecha a que pertenece el texto y las características de ello derivadas; el momento de esa obra en el conjunto de la producción del autor y las consecuencias que de ello resulten; las características originadas de la inserción del fragmento en la obra en cuestión”, DÍEZ BORQUE, 1998, 19. Ez dut uste lan honen helburua Díez Borque-k zehazten duen guzti-guztia zehaztea denik, baina aipamen hori orientagarria izan daiteke.

¹² Lehenik eta behin, Rosa Miren Pagolaren lan bi dira lehen-lehenik aipatzekoak: *Artikulu bilduma* delakoaren hitzaurrea (1990) eta *Bidegileak* bilduman argitaratu zuen *Enrike Zubiri Manezaundi (1868-1943)* (2003) izenburudun liburuxka dira. Horiek baino lehenago *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca* izeneko lana argitaratu zuen Angel Irigaray-k (1958) Frankoren diktadurapean, bera izanik Manezaundiren irudia berreskuratzen aurrenekoa, nahiz eta bere azterketa gainditua izan den. Handik urte batzuetara, Jose María Satrustegik artikulu bat argitaratu zuen *Zeruko argia*-n (1967-x-29) haren bizitza eta lanaren zertzeladak emanez. Joxemiel Bidador ikerlariak ere (2004, 220-222) Manezaundiren ibilbidea aztertzen du bere *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra* izeneko lanean.

¹³ El publicar artículos de opinión ya indica una cierta intencionalidad persuasiva, que es el objeto del discurso retórico. No pretendemos teorizar sobre este tema y preferimos basarnos en estudios ya publicados sobre el tema, como el de la obra *La opinión periodística* en el capítulo titulado “El artículo periodístico o la retórica de la persuasión”, SANTAMARÍA, 2000, 125-161.

zuen zer bait transmititzeko premiarik? Izan ere, Manezaundiren gaztelera nahiko zalu eta dotorea zen (ezagunaenez, artikuluko batzuk gaztelera ere argitaratu zituen¹⁴). Hala ere, karinoz kutsatutako joera berezia erakusten du euskaraz idaztean. Agian printzipio batzuk horren jatorrian egon daitezke.

Enrike Zubiri Manezaundi Luzaidetara izatea esanguratsua izan daiteke edota eragina izan dezake gure azterketan¹⁵. Herri txikia izan da eta da Luzaide¹⁶, baina bere arrastoa literaturan kontuan hartzeko modukoa da:

- Mugako herria dugu, eta honek kultur edota nazio-nortasunaren gaineko berbaldiak izatera bultzatzen ahal du Manezaundi¹⁷.
- Argi dago, gainera, mugaz bestaldeko anai-arrebekin¹⁸ dituzten harremanak komertzialak izateaz gain¹⁹, kulturalak ere badirela²⁰, azken honen nortasunaren eraikuntzan eragin nabarmena izanik.

Bestalde, eta azterketari ekin aurretiko kokapen bat egite aldera, gogoratu behar da Nafarroan euskaraz burututako kazetaritza bere hastapenetan zegoela. Beste egile nafar bat, Pablo Fermin Irigarai *Larreko*, horretan aritu eta entzutetsu bilakatzen ari zen²¹. Biek, hau da, *Larreko* eta *Manezaundik*, honako argitalpenetan argitaratu zuten:

- *La Voz de Navarra*
- *Eskualduna*
- *Euzkadi*
- *El Día*
- *Argia*

Nafarroako “Euskararen Adiskideak” elkarteak bazkidea ere izan ziren biak²². Aipagarria da baita ere, 1877tik aitzina “Asociación Euskara de Navarra” deituriko elkarteak garatu zuten lana, euskara eta euskal kulturaren alde-

¹⁴ PAGOLA, 1990, 13; BIDADOR, 2007, 67.

¹⁵ Luzaidetara, herri txikia izanik ere, ekoizpen literario oparoa izan du historian zehar. Satrustegik (1997, 100) hiru egile luzaidar ezagun jartzen ditu lehenengo lerroan: Nikolas Polit, Manezaundi eta Bordel.

¹⁶ 2004ko udal-eroldaren datuen arabera, 443 biztanle zituen erroldatuta. 1860. urtera jotzen badugu, berriz, 996 biztanle ageri dira. Iturria: http://www.cfnavarra.es/estadistica/agregados/poblacion/censos_padron

¹⁷ Aitzpea Leizaolak (1999) euskal mugetako lurraldeetan pertsonak ukitzen dituzten nortasun-eta zuzenbide-kontuak aztertu ditu.

¹⁸ Zilegi bekik termino hau erabilitea, “biztanle” edo “bizilagun” neutroagoak izan zitezkeen arren. Manezaundik berak erabiltzen duen gertutasun-kutsu hori ez dela kalterako izango uste dut.

¹⁹ Arestian aipatutako Aitzpea Leizaola ikerlariak zenbait datu ematen dizkigu: “the facería, an agreement for sharing pasture between the valley of Baigorri and the valley of Luzaide (Val Carlos), in for long before 1856, is a clear example. The Additional Act of the Treaty of Limits (1866) put this old oral agreement on paper and submitted it to regulation.

Various agreements, such as those concerning the rights of pasture and water for cattle, have been renewed over the centuries, even in periods of armed confrontation between the two states. This was the case during the Napoleonic wars (1808-1812). Inhabitants on both sides of the border resisted taking part in the war; on the contrary, they worked together to maintain peace in the Pyrenean area”, LEIZAOLA, 1996, 93.

²⁰ Ezin da ahaztu zonalde honetan euskalki bera hitz egiten dela mugaz alde bietako herrixketan. HOLELA dio Angel Irigaray-k: “El dialecto usado por Manezaundi pertenece al bajo-navarro occidental y es el mismo grupo que el de Kintoa, Argneguy y valles Osés y Baygorry”, IRIGARAY, 1958, 12.

²¹ ANTOÑANA, 1991, 207-226; *Ibidem*, 337-348.

²² “1925. urtean, “Euskararen Adiskideak” elkarteak eratu zen ofizialki Nafarroan. [...] Bazkideen zerrendak hurrengo urtean agertuko ziren La Voz-en, martxoaren 6, 7 eta 21ean, hain zuzen ere, Manezaundi 7koan agertu zelarik”, ANTOÑANA, 1995, 338-339.

ko giroa berotu zuena²³. Bestalde, arlo politikoan, Eusko Alderdi Jeltzaleak jardura ildo sendo bat jorratu zuen euskal kazetaritzaren arloan²⁴ eta zenbait egile nafarrek, tartean Manezaundi zelarik, hori baliatu zuten beren euskararen aldeko maitasuna eta beren aldarrikapen kultural eta ideologikoak argitarara emateko.

Espainiako egoerak eragina izan zuen, zalantzarik gabe, euskal idazleengan eta, nola ez, Espainiako giro politikoak bazuen bere isla orduko kazetargintzan eta Eduardo Guzmanek (1984, 150) azaltzen duena euskal prentsan ere islatzen zen:

Los acontecimientos sociales y los debates parlamentarios suelen ir precedidos, acompañados o seguidos de encendidas polémicas en las columnas periodísticas que el público lee y comenta con un apasionamiento como no se ha producido ni antes ni después.

Garai hura Espainiako prentsan nola bizi zen Teodoro Leon Gross-ek azaltzen du lan batean²⁵.

Azterketa bati ekin aurretik aztertzen diren testuen generoa eta adierazpidea azaldu behar dira²⁶. Argi dago kazetaritza-testuak direla Manezaundiren hauek. Horren barruan artikulua dira. Baina artikuluen edukien arabera ere hainbat sailkapen ditugu. Testu hauen tipologia egin dago beste artikulua batean²⁷. Bertan euskarazko testuak hartu nituen eta testuen tipologia bat zehazten ahalegindu nintzen Vilarnovo-k eta J. F. Sánchez-ek eskaintzen duten sailkapena²⁸ kontuan hartuta.

Testuen tipologia egin ostean, argudiaketa nagusi dela ondorioztatu nuen²⁹. Dibertsio huts diren kazetaritza-testuak ere ugari dira, baina halakotan argudiaketa inplizituki ageri delakoan nago³⁰.

2. EDUKIAREN ANALISIA

2.1. Egilea testuaren barnean

Egileak testuarekiko duen jarrera axola zait orain; izan ere, egilea aztertu beharra izan ohi da lehen-lehenik edukiaren analisiari ekin aurretik.

²³ “La Asociación Euskara de Navarra iniciaba su andadura en 1877 defendiendo lengua y fueros de un antiguo reino venido a menos y convertido en provincia. Pese a mantenerse una década escasa, sus miembros continuaron trabajando desde diferentes militancias. Su fruto culminó con las fundaciones de Eusko Ikaskuntza (1918), y de ella Euskaltzaindia (1919), constituyendo esta última creación el mayor hito en la historia de la lengua vasca”, JIMENO ARANGUREN, 2000, 10.

²⁴ “El PNV fue el único partido que de forma constante y permanente dio un lugar, si no preferente, sí señalado y emblemático al euskera en todas sus actividades. [...] un significativo grupo de colaboradores en su prensa intentaron mostrar al euskera como un útil de cultura y de comunicación real, capaz de abordar todas las temáticas y problemáticas contemporáneas. Las únicas publicaciones que el periodo estudiado (1893-1936) contaron con colaboraciones asiduas y cuasi permanentes en euskera fueron *La Voz de Navarra* y *Amayur*”, CHUECA, 2000, 231.

²⁵ Bere *El artículo de opinión* liburuan, 9. kapitulu honako hau aztertzen du: “De la República a la guerra civil: El artículo como arma cargada de futuro”, LEÓN, 1996, 92-102.

²⁶ DÍEZ BORQUE, 1998, 24-31.

²⁷ BARANDIARAN, 2007, 15-36.

²⁸ VILARNOVO, A; SÁNCHEZ, J. F., 1992, 161-162.

²⁹ BARANDIARAN, 2007, 24-25.

³⁰ *Ibidem*, 25, 34-35.

Gure begien aurrean ageri den aurreneko ezaugarria bere jarrera da. Jarrera aktiboa da Manezaundirena, iritzi sortzailea, errealtatea analizatuz eta juzkuak eginez. Arrazoiketa presente egoten denean, arrazoiketaren garapena jada eginda eskaintzen zaio irakurleari, jauzi edo lotura ezkutuko askorik gabe. Horretan asmo pedagogikoa ageri da, argi eta garbi. Baina hau adibide zehatzetan argiaren ikusten denez, hona hemen batzuk:

Lehenengo adibidea: "Aberats berri yaunduak"

"Aberats berri yaunduak" izeneko artikulua³¹ guztiz baliagarria egiten zaigu egilearen jarrera irudikatzeko. Sententzia kategoriko batek ematen dio hasiera artikuluari: "Denek dakigu eskualduna ez dela bere izaitzez, urguluntzia; bainan xumea eta lañoa, bathere haundi-nahia". Honek egilearen ustearen berri ematen digu eta arrazoiketaren tesi nagusia edota markoa ezartzen du. Ondorenean, berriz, tesi nagusi hori apurtzera datorren adibide edo salbuespen baten berri ematen zaigu: zenbait "aberats berri yaunduak", hain zuzen. Artikulu horretan eredu horren arketipo bat erakusten digu Enrike Zubirik, herritar baten eta haren arteko balizko elkarrizketa bat eta guzti. Hona hemen bere aurkezpena: "Halere noizian behin, (arras gutitan, zorionez), agertzen zauku Kalifornian sos parrasta eginikako amerikano bat, bere sorherrirat yoana herritarren harrizterat, ustez eta bere diruketez denak azpiratuko dituela, [...]"³².

Jakina, honelako artikuluetan antzematen da alde aurretik ze norabidea hartuko duen berbaldiak. Deskripzioa, arrazoiketa eta antzezpena (elkarrizketa) erabiliz salbuespen lotsagarri horren absurdoa eta erridikulua agerian uzten ahaleginduko da egilea, sarkasmo fin eta umoretsu batez baliatuta: "Eta eskuak altxatzen ditu norbait hurbiltzen zaiolarik, kokotza perekatuz, untsa ikhus ditzen haren edergailu yoriak"³³.

Testuari itxidura ematen dion esaldiak ere balio pedagogikoa dauka, ahozko estiloari eutsiz, betiere: "Gogoan behar lukete atxiki yaundu berri horiek erran zaharrak diona: «Ziminoa goitiago eta uzkia ageriago»"³⁴. Arrazoiketaren adierazkortasuna, adibideen grafikotasuna eta printzipioen gizatasuna dira jarrera pedagogiko honen zutaberik sendoenak. Honelako esaldietan, ipuinen bukaerako azken "irakatsiak" datozkigu gogora³⁵. Irakatsi hori, eza-guna denez, errimak markatua izan ohi da ahozko estiloko ipuin aunitzetan.

Bigarren adibidea: "Bazterretxian"

Artikulu konstumbriata bat aukeratu dut bigarren adibidetzat. Bazterretxe edo bere zonaldeko baserri batean bizi den familia baten eguna kontatzen da bertan. Ageriko arrazoiketarik ez duen artikulu horietako bat da, baina az-

³¹ *La Voz de Navarra*-n argitaratua, 1934ko urtarrilaren 2an, ZUBIRI, 228-230.

³² *Ibidem*, 230.

³³ Indianoak hatzamarretan dauzka eraztunez ari da, *Ibidem*, 229.

³⁴ *Ibidem*, 230.

³⁵ Irakatsi horiek, bestalde, *peroratio* delako baliabide erretorikoari ere lotuta daudela ematen du, bertan esan nahi den mezuaren laburpena kondensatzen baita: "La peroración (PERORATIO) [...] designa la última parte del discurso público en que el rétor «recoge esquemáticamente los argumentos en discusión y las soluciones propuestas con el fin de ofrecer una visión de conjunto»", KUNZ, 1997, 39.

pian, eta narratzaileak egindako errealitatearen aukeraketan zein bestelako oharretan, antzematen da ideologia bat dagoela oinarrian.

Kontaketa egunarekin batera doa. Egunarekin bat (“argi urratzean yaiki-rik”) jaikitzen dira eta gosari-legea egin eta gero, badoaz lanera (“Behiak bordan uztartu ondoan badoatzi alhorrerat”). Eguna betetzen duten zereginak (otordua, baserriko lanak, emakumezkoen eta gizonezkoen lan-banaketa...), ohiturazko margolan bateko zertzeladak izateaz gain, aukera batzuk dira egileak zenbait balio eta zenbait jarrera agertzen dituelarik.

Familiako kideek egun horretan zer egin behar dutenarekiko ez dute inolako kezkarik, talde-lana burutzera doazelako inpresioa ematen baitu.

Hamabietan, naturaltasunez kristau-otoitza bat egiten dute: “Eguerdiko danbak entzutean, hiru gizonak, buru-has anyelusako othoitzaren egiten dute, eskualdunen ohidurari huts egin gabe”. Bazkaria ere elkarrekin egiten dute, etxeoandreek maitekiro prestaturiko bazkari osasuntsu eta oparoa.

Arratsaldeko lanaldia burutu ostean, afaritara biltzen dira berriro ere, baina horren aurretik zangoak garbitzen dituzte, beren ohitura garbiak berriro ere erakutsiz. Hori ere egilearen komentario labur baina egoki baterako aukera da: “Gurien arthean garbitasuna da oroz-gainetik gauza beharrena, eta ohidura horri sekhula ez dute huts egiten”.

Langiletasuna, elkartasuna, kristautasuna eguneroko bizitzan uztartua, bizimodu sinple eta saiaturia, gauza xumeekin gozaten jakitea... horra horrekin modu subliminalean azaleratzen zaizkigun balioak, goraipamen espliziturik behar ez dutenak, irakurle gehienek (Manezaundiren garaikoe, behintzat) baliozkotzat baituzte.

Hirugarren adibidea: “Gure gizonak. Arthur Champion”

Dibulgazio asmo batek bultzatu egiten du Enrike Zubiri honelako artikulua idaztera. Nafarroako kulturaren itzala izan duten gizonen ibilbidea kontatzen du Manezaundik, baina ez informazio hutsa irakurlearengana helaraztearen, ez. Gizon horiekin eta beren mezuarekin guztiz identifikaturik ageri da egilea. Hori artikulua hasierako esaldiak berak salatzen du: “Ene goresmen haundienak xumeak litezke gizon hunek merexi dituen neurriak hartzeko”.

Manezaundik, Campionen ibilbide akademikoa ez du aipatzen soilik: go-raipatu ere egiten du. Lantzean behin harridurazko perpausen bat eta guzti tartekatzen du: “Gizon miresgarria!”. Izan ere, lorpen akademikoak ez ezik, horiek guztiak nola lortu dituen ere azaldu nahi izan du: aberats batzuen semea izanik, bazeukan bizimodua konpondua; hala ere lanari lotu zitzaion gaztetatik. Euskara ikasteko hamaika ahalegin egin ei zituen. Bere zahartza-roan ere ikerketa-lanetan murgildurik jarraitu zuen, merezi ei zuen erretiro lasaiari uko eginez. Bestalde, artikulua probesten du honako hau salatzeko: Campionek omenaldirik edota aitoren jaso ez izana, bere jarrera politikoa agintean daudenen gustukoa ez delako.

Eta hona hemen, hasieratik antzematen den bezala, egileak gai honekiko jarrera agertzen duen azken esaldia: “Gorets dezagun Kanpion haundia, eta Yinkuak iraunaraz dezala anitz urthez”. Egia da hau guztia zenbait argumentu eta arrazoitan oinarritzen ahalegintzen dela. Hala ere, hori ez da oztipo izaten egilearen ondorio suharra edota balorazio amultsua agertzeko.

Horrelakoak adierazteko ez du bere estiloa leuntzen, argumentazio emotiboren koartada afektiboa duela bai baitaki.

Zalantzarik gabe, eta bere joera politikoak gogoberotuta agian, partziala da Enrike Zubiriren jarrera, zerbaiten aldekoa, balorazio eta irakurleari egingdako apelazio zuzen eta abegikorretan antzematen denez.

2.2. Gaia, arrazoibideak eta tonua

Edukiaren analisisa aztertu nahi bada, gaia, arrazoibideak eta tonua aztertu behar ditugu³⁶. Kontuan hartu nahi dugun corpusaren gaia ez da bat eta bakarra, inolaz ere. Artikulu bakoitzak badauka bere gaia, nahiz eta artikulu batzuk gai berbera edo berdintsuaren izenburupean biltzen ahal ditugun. Rosa Miren Pagola doktoreak ederki egin zuen gaien sailkapen bat Menezaurdiren euskarazko artikulua editatu zituenean³⁷. Sailkapen hartan ikus daitekeenez, gaiak asko dira; izan ere, Manezaurdik gai berberaren inguruko artikuluekin ez ditu irakurleak aspertu nahi. Gai-sorta ugaria jorratu nahi du, bere mezuaren aberastasuna ageriago uztearren: paisaiak, hirigintza, ipuinak, gertaera herrikoiak, ohiturak, gai historikoak, pertsonaia ospetsuak...

Bestalde, aipatu dudan egilearen jarrera aktibo hori, zein helburutarako eta zein puntutan gauzatzen den jakitea ere argitu beharko litzateke. Zein jarrera ideologiko edo, are interesgarriagoa oraindik, zein helburu ideologiko dago honen guztiaren azpian? Zer nolako lotura dauka horrek jorratutako gaiekin?

Bistan da nortasuna dela egilearen jomuguetako bat. Modu ez oso kontzientean agian, egilearen testuetan nortasunaren aldeko berbaldi bat garratzen da, bere berbaldiaren ardatz garrantzitsua bilakatzen dena. Nortasun hori euskal nortasuna da, jakina, eta ezaugarri jakin batzuk baditu:

- A) Mugaz bestaldeko euskalkiarekin identifikatuta sentitzen da, hurbilgotzat sentitzen du, gipuzkera edota Hegoaldeko beste euskalkien aldean.
- B) Euskararekin berarekin identifikaturik sentitzen da, bai eta zenbait euskal ohiturekin ere. Nortasunaren elementu ezinbestekoak dira berarentzat.
- C) Premiazkotzat jotzen du euskaldunek gero eta gehiago elkar ezagutzea, batez ere mugaz alde bietako aldeak eta berezitasunak biguntzeko, guztiek herri bateko kideak direla kontzienteago izan daitezen.

Logikoa denez, arestiko ezaugarriak artikulua-motaren arabera neurri batean edo bestean agertuko dira. Esate baterako, paisaiei eskainitako artikuluetan bere behaketa-gaitasuna nanbarmenduko da, hainbat zertzelada kostumbrista eta zenbait metafora tartekatuz. Baina beroietan ez dira aurreko ezaugarriak agertuko. Implizituki, oster, zerbait komunikatu edo transmititu nahi digu: euskal lurrarekiko eta euskal ohiturekiko atxikimendua edota maitasuna. Bere pertsuasioa *delectare* delako estrategiaren bidez³⁸ dago bideratuta. Pertsonaia herrikoien pasadizo eta elkarrizketak agertzean ere, antzerako jarrera hartzen du. Elkarrizketen bizitasuna eta herritarren adierazkor-

³⁶ DÍEZ BORQUE, 1998, 40-53.

³⁷ ZUBIRI, 1990, 13, 21, 443-447.

³⁸ Estrategia honi buruzko azalpenak lortze aldera, honako lan hau kontsultatzea komendatzen dut: *Persuasión. Fundamentos de retórica*, SPANG, 2005, 89-90.

tasuna testua bera atsegina egiteko osagaiak dira eta horrela irakurlearen sinpatia irabazten da... edo, gutxienez, mezuak jasotzeko alde aurretiko jarraia ona sorrarazten da.

Baina, jakina, aipatutako ezaugarriak modu esplizituan ageri dira beste hainbat artikulutan eta adibide zehatzak bistaratu eta aztertzea izanen da onena.

A) Euskalkiarekiko identifikazioa

Ezaguna da Luzaideko hizkera behe nafarreratzat³⁹ hartua izan dela. Manezaundik bere herriko hizkera maite du eta praktikan jartzen du ahal duen orotan. Bere testuetan argi eta garbi adierazten du bere euskalki-kontzientzia:

Barka nezazie, irakurle onak. Baxenabarreko eskuaraz idatzi lerro hauk, bainan Eskualherriko bertze mintzoetan trebe ez izanik bakotzak ez du emaiten ahal berak dakienetik kanpo⁴⁰.

Kontzientea da, beraz, behe nafarrera⁴¹ dela bere herriko euskara (nahiz eta Nafarroa Beherearen barnean ez izan). Zenbait artikulua honako azpitu-luarekin argitaratzen ditu: “Benabarreko eskuaraz”. Beraietan bere herriko euskara darabil, baina ahalegin berezi bat somatzen da Donibane Garazi aldean erabiltzen diren lexikoa, esamoldeak, atzizkiak edota egiturak erabiltzeko. Izan ere, gustokoa du bere sorterriko hizkera aztertzea eta bere emaitzak biltzea. Aitortzen zuenez, heldua zelarik, oporraldi guztiak bere sorterrian ematen zituen batez ere bere herriko hizkera aztertzeko asmoz.

Gehiago ikhertzen ditut eskuararen erroak eta zoko mokoak, eta gehiago ohartzen niz bere edertasunaz eta aberastasunaz.

Sakhelean bethi deramat liburuxka bat, eta nere solasetan bazterretxetarrekin ohartzen badut zerbait itzulika, edo aditza molde zaharrak, paperrian ezartzen ditut, eta oharren anitz baditut bilduak⁴².

Iparraldeko beste hizkera eta euskalkiak hobeki ulertzeko arrazoiketa anitz egiten ditu, besteak beste, ulertzeko zailak direlako mitoa deuseztatu nahian:

Zonbat aldiz ez dugu entzun Xuberoko eskuara arras nekez ulertzen dela. [...] Guk Luzaidekoek, garzatarrek eta aldudarek errexki ulertzen

³⁹ Luis Lucien Bonaparte Printzeak egindako euskalkien sailkapen (1869ko mapan, adibidez) Luzaide mendebaldeko behe nafarreraren barruan kokatu zuen. Harrez geroztiek, zorionez, bada Luzaideko euskara aztertu duenik. Aztertzaile guztiak aipatu ezin diren arren, Jose Maria Satrustegi aipatu behar delakoan nago. Euskaltzaindian sartzean, Luzaiden erabiltzen ziren “otoitz ttipiak” aztertu zituen (SATRUSTEGI, 1964). Satrustegik berak beste lan batzuk argitaratu zituen bertako ondarea bilduz. Bat azpimarratze aldera, “Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan” izeneko txostena azpimarratuko nuke (SATRUSTEGI, 1981). Patxi Salaberrik (SALABERRI, 2000), beste egileek proposatu duten bezala, Luzaideko hizkera Garaziko hizkeren artean sailkatzearen beharra ondorioztatzen du, azterketa zehatz baten ondorioz. Puntu honetan bat dator Manezaundik berak hainbat aldiz aldarrikatu zuenarekin: Garaziko hizkera beretzat sentitzen zuela. Gaur egungo beste ikerlari zenbaitek (ZUAZO, 2003, 148-149) Luzaideko hizkera Iparraldeko euskalkien barruan kokatzen dute. Zer esanik ez, aipatu beharra dago, azkenik, Peio Kamino eta Patxi Salaberrik argitaratu duten *Luzaideko Euskararen Hiztegia* (KAMINO, 2007), zalantzarik gabe bertako hizkeraren ikerketan mugarri garrantzitsua dena.

⁴⁰ ZUBIRI, 253.

⁴¹ Batzuetan hau esplizituki adierazten du. Nafarroa Behereko hizkerarekin ez ezik, Lapurdiko hizkerarekin ere antzekotasunak aurkitzen dizkio Manezaundik: “Sarako eskuara Luzaidekoa bezalakoa da”. Nafarroako Behereko euskararen sakontzeko Iñaki Caminorren “Nafarroa Behereko euskara” artikulua dugu ikuspegi berri eta eguneratua ematen digunetako bat (CAMINO, 2004).

⁴² ZUBIRI, 289.

dugu; eta hemen berean, Iruñean, ari niz egun guzietz solasian xuberotar batekin, biak buruz buru, bathere nekerik gabe, legunki, trebeki⁴³.

Horregatik Manezaundik ez zuen begi onez ikusten Nafarroan euskaldundu nahi duten euskaldun berriek, modak bultzatuta edo irakasleek horrela behartuta, nafarrera⁴⁴ alde batera utzi eta Gipuzkoa aldeko euskalkira jotzea prestijio handiagoa zuelakoan.

Ba eta, futxo! etzait gauza bera gerthatzen gipuzkoarrarekin, erdizka baizik ezin ulertuz. Eta Nafarroan, hain eskuara ederra izanik ere, Iruñerak ari dira gipuzkoarraren ikasten!⁴⁵.

Geroago ere azalduko dugunez, nafarreraren aldeko apostua ez zen pasatzen Sabino Aranak abiatutako garbizalekeria linguistikotik.

B) Euskararekiko identifikazioa

Asko eta asko dira bere ama-hizkuntzarekiko identifikazioa agertzen duten aipamenak. Aberri-hizkuntzatat dauka eta uste du ez direla hitz egiteko aukerak galdu behar⁴⁶. Manezaundiren izaeraren barne muinean dago euskara lantzeko grina:

Ene urgulo eta yaidura haundiena da gure arraza edo ariako mintzaiaren yakitea, eta nihauk ere anitz ahantzia izanik, hainbeste urthe Iruñen egon onduan, yarraiki nintzan arraberritzerat eta zalusko ardietsi nuen, [...]

Egiatzko eskualdunak oroz-gainetik behar du yakin bere mintzoa, eta egin-ahalak egin asmo eder horren ardiesteko⁴⁷.

Euskara, Manezaundiren berbaldian behintzat, euskaldunen⁴⁸ arteko lotura ikusiezina da, gure sustraiekin bat, gure arbasoen deialdiarekin bat egiten gaituena. Maiztasun apalagoan bada ere, sarritan mugaz bestaldeko⁴⁹ euskaldunen kultura-adierazpenei erreferentziak egiten dizkie. Izan ere, mugako alde bietan erabiltzen den hizkuntzak herri bilakatzen ditu edo gaitu.

Bainan zer du gure mintzairak, gure yendaki edo arrazak, gutarrekin aurkitzen girelarik berehala gure baita erakusten dugula, gure barneko atheak zabal-zabal idokitzen, yitea eta izaitea agerian ezarririk?

⁴³ *Ibidem*, 259.

⁴⁴ Jakina da Nafarroan ez dagoela euskalki bakar bat. Manezaundik, berriz, ez du inongo euskalkirik hobesten. Denak errespetu egiten ditu eta denak ulergarri eta edertzat jotzen ditu.

⁴⁵ ZUBIRI, 259. Era berean, badira zenbait baieztapen non nafar bazuek (euskalduntzean) gipuzkerarekiko duen lilura kritikatzeko duen: “Bainan ni çausartzen naiz erraiterat eskualtzaille suhar horier ikas dezaten Nafarroako mintzoa. Ez beste eskualdeko batetakoa, anitz ikasle berriek egiten dutena”, *Ibidem*, 255.

⁴⁶ Enrique Zubirik bereak kontatzen du euskaldun bat topatzea eta berarekin euskaraz hasia bat direla bere bizitzan: “Nik bi eskualdun kausitzen ditudalarik bere mintzoan eleka, berehala lotzen niz heiekin solasian, hori baita ene atsegin goxoena”, *Ibidem*, 275.

⁴⁷ *Ibidem*, 265.

⁴⁸ “Euskaldun” hitza bere adiera etimologikoan hartzen dut kontuan hemen.

⁴⁹ “Ohidura zaharrak. Ihauteri Karakotxak” izeneko artikulua Luzaideko dantzei buruz dihardu, eta bertan Garazi bailarako dantzekin antzekotasunak aipatzen idra. Zehazki, Luzaideko dantza-taldek batek alboko Arnegi herrira duen ohitura deskribatzen da. Dantzatu eta gero, arnegitarrek edari eta bizkotxoak egiten dizkiete opari. *Ibidem*, 327-328.

Odolaren deia! Zer indartsua eta neurrigabekoa duen, zer lokharri azkarrak dituen eskualdunagoak, hain tinki atxikarazteko gutarteko eskaerak menduan!⁵⁰.

Euskaraz idatziriko lehenengo libururuari erreferentzia eginez, bertan erabiltzen den euskara azken mendeotan ez dela apenas aldatu azpimarratzen du; izan ere, berak, Manezaundik ulertzen du. Ezaugarri hau ez omen dute gure alboko erderak (gaztelarak eta frantseserak), orain lauhun urteko testuak ia-ia ulertezinak baitira gaur egungo erdaldunentzat.

Oraiko Espainiako edo Frantziako yende xehek irakurri nahi balukete lau ehun urte aitzineko beren mintzaira, erdizka bezik ez lezakete ulhertu. Hain dira aldatuak gerozkioz⁵¹.

Hizkuntzarekiko jarrera honi zeharo loturik, euskaldunek euskarari egiten dizkioten laidoak eta gutxiespenak oinaze-iturri izaten dira Manezaundi-entzat. Hizkuntzaren balio linguistiko eta kulturala azpimarratu beharrean (jarduera positiboa), hizkuntza honi egiten dizkioten erasoan aurrean erreakzionatzen du (kontra-erasoa). Erreakzio horretan pisu handia dauka honako arrazoiketak: “Euskararen galerak euskaldunen nortasunaren galera dakar, ezinbestekoa eta ordezkazina den puntu batean, hain zuzen”:

Izigarri da nola suntsitzen ari den gure eskuara ederra. Patar behera legun bezala badoa, ikharagarritzko zalutasunean, denek bazterturik, alde bat utzirik, gupida eta amodiorik gabe holako mintzaiari, hain haundizki goretzia gizon yakintsuenaz. Bai, hori da borthitza, lazgarriena, hitsena gure herriarentzat, zeren eta mintzaia gogoaren miraila balinbada, hura galduz geroz guhaur gure etxean arrotzak izanen gira. Ba ote da ahalgegarriakorik?⁵².

Aitortu behar da ez duela “nortasun” hitza erabiltzen honelako kontuei buruz hitz egiteko tenorean, baina bai antzerako tasunak dituen bestelako hau: “arima”. Norberaren ama-hizkuntza alde batera utziz gero, gizaki horren arima “bertzelakatzen” omen da, haren izaerari konponbiderik gabeko kaltea eraginez:

Erraiten dute odoleko mintzaira galtzen duenari arima bertzelakatzen zaiola, eta mintzo berriaren idurikoa eta heinekoa bilhakutzen dela, zeren eta mintzaira delakotz gure baitharen elea. Beraz, hona izanezkioz ez da handi erdaldunduak nola gutiesten duen eskuara. Ez da adosten bere yite eta izaitearekin: arrotz elhea iduri zaio, eta ukho egiten dako.

Horra zer ondorio izigarriak ekhartzen dituen eskuararen galtzeak. Ahanzkor bakhotxan phizten da etsai bat⁵³.

⁵⁰ ZUBIRI, 276. Ideia hauxe bera beste modutara agertuko da beste artikulu zenbaitetan: “Nik ez dakit zer dugun eskualdunek, zer atxikimendu eta lokharri miresgarriak ditugun guharen odoleko direnentzat, baina arrotz herrietan edo eskualdun herri erdaldunetan gure mintzo ederra entzuten dugularik norbaiti, bihotza zabaltzen zaizkigu eta holako kilikaño goxo batek inharrosten dauku, gure adixkide mina edo haurride izan balitz bezala”, *Ibidem*, 226.

⁵¹ ZUBIRI, 104.

⁵² *Ibidem*, 253-254. Bere ama-hizkuntza galdu duen euskaldun horren lotsa-sentimendu horretan sakonduz, honelaxe dio: “Erresuma guzietako gizon jakintsuenek mintzaira zaharretako ithurburuen bidezko lanetan ari direnak harrituak dire gure mintzaiatik ez bakarrik bere urruntasunatarik mendeetan galduak bainan bere hitzketa aberatsatarik. Diote bakharra dela bertze mintzoarekin ahaidetik gabekoa, zaharrena eta ederrena. Eta guk gaixo zozoak alde batherat baztertzen, erdaraz liluratuak eta uzartuak”, *Ibidem*, 414.

⁵³ *Ibidem*, 151-152.

Hizkuntzak arima itxuratzen duelako ideia behin baino gehiagotan agertzen da luzaidarraren idazkietan⁵⁴. Irakurleari eragin nahi dio argumentu horrekin, ideia beraren ikuspegi desberdinak eskainiz, eta bere formulazioan ñabardura berriak erantsiz, ez baitzaio gauzak berdin-berdin errepikatzea gustatzen.

Euskara euskal abertzaletasunaren muinean ikusten du, Sabino Aranaren ikuspegiaren ez bezala (bertan “endak” edo arrazak baitzuen lehenetasuna). Horretan Arturo Campionen eragina somatzen da, zeinen ustez hizkuntza baitzen “bereizgarrietan bereizgarriena”.

C) *Mugaz alde bietako euskaldunek elkar ezagutzea*

Manezaundiren berbaldian bada sarritan agertzen den *leitmotiv* bat: ezagutzatik maitasuna dator. Ezin da maitatu ezagutzen ez dena. Arrazoi hau euskaldunen herri- eta kultura-kontzientziari aplikatzen dio. Mugaz alde bietako euskaldunek herri-kontzientzia hori izan behar omen dute eta berori sustatzearen edo argumentazio lan eskerga bati heltzen dio Manezaundik.

Enrike Zubirik argi dauka herri-kontzientzia bat eraikitzeko lehenengo pausoa elkar-ezagutzea dela. Berarentzat Nafarroa Beherea aski ezaguna da, bere sorterritik gertu baitago, eta bai berak, bai bere herkideek harreman asko dituzte mugaz bestaldeko herritarrekin. Baina jakitun da hori ez dela Hegoaldeko euskaldun anitzen egoera. Horregatik, bere “Iphar aldeko eskualdunak” izenburudun artikuluan, bere argumentazio-jarduera honela justifikatzen du.

Nik uste dut hango eta hemengo ezagutza hedatu behar dugula gutartean, eskualdun guziek yakin dezagun nolakoak giren eskualde guzitarra, zeren eta ezagutzetik sortzen delakotz amodioa eta anaitasuna⁵⁵.

Are argiagoa eta artikulatuagoa da ondorengo argumentazioa⁵⁶, Donostiako *El Día* egunkarian 1936ko maiatzaren 31an agertu zena:

Jende xeheek, damurik, ez dute izan axola edo grifia haundirik gauza horietan, eskualdun hitsak izanikan ere ez baitakite zer ginen, nola galdu ditugun gure ele eder eta zuhurrak.

Behar dituzte kudeatu, akhulatu, sustatu, barnian duten suhazia eta phindarra buhatu bihotzeko garra phitzarazteko eta hedatzeko.

⁵⁴ “Aberri solas” izenburudun artikuluan, honela dio: “Mintzairak arima eta gogo-bihotzak berenganatzen ditu.

Hain du indar gaitza, nun erran daiteke eskuara ez dakien eskualdunak ez dela gutarra. Odola guerea du, bainan bere yitea eta adimendua bihurtu dira eta arrotz bilhakatu”, *Ibidem*, 171. Emake euskaldunei eskaini nahi dien artikulua batean, honela aholkatzen ditu: “Emakumeak, emazue hor, lanari; mintza herri eta herrixketan eskuaraz nextatoeri; [...] Ohakoako mintzoa ahanzten edo baztertzen duenak, bere gogoa, bere baita, bere izaieta bertzelakutzen du, eta arrotz bilhakutzen da bere kidekoen artean”, *Ibidem*, 262-263.

⁵⁵ ZUBIRI, 234.

⁵⁶ Hau ez da horren inguruko aipamen bakarra. “Baxenabarre ahantzia” izeneko artikuluan, adibidez, horrela hasten du bere arrazoiketa: “Erran zaharrak dio, amodioaren ithurburuak zagutzatasunian duela bere hastapena. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen ahal. [...] Lehen lehenik ezagut giten. Hori da lan beharrena, baitezpadakoa, lehenbizikoa. Gero yiten dira ondorioak; yin behar direnak oro”, *Ibidem*, 218.

[...] Ezagut dezagun gure herria gure edestia edo historia edo gure hizkuntza paregabekoa. Ezagutzatik sorthuko da maitetasuna. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen ahal⁵⁷.

Dibulgazio-alderdi edo –ikuspuntu bat dauka zeregin honek eta bat dator honekin Nafarroako gizon ospetsuei buruzko artikuluetan egiten duen dibulgazio-lana. Nafar haien artean baxenabartar bi hauek sartzen ditu: Bernard Detxepare XVI mendean Eihalarren jaioa, Luzaidetik kilometro gutxitara; eta Juan de Huarte Donibane Garazin sortua.

Lantzean behin euskaldunak administritiboki bereizten gaituzten mugen “egileak” gutxien ditu Manezaundik, kultura-errealitatearen bidez eta hizkuntzaren errealitatearen bidez. Esaterako, bere herrikoa zen “Boryel” bertsolaria zela-eta, honela zioen:

Nere herrikoa zen, Luzaide-koa, bainan gu Espainiari eratzikiak edo lothuak izanikan ere, Benabartarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik...

Eta horra zergatik «Manezaundi» izengoitiarekin idazten dituen lerro hauk mintzatzen den hango eskuaraz, Napartarra izanikan ere... zeren eta gure eskuara, gure dantzak, gure ohidura eta aztura guziak, ba eta odoleko lo-kharriak ere, mendiz bertze aldekoak diralekotz. Iphar aldekoak girelakotz⁵⁸.

Izan ere, erdaldunok ez ezik, euskaldunek ere ezagutu behar omen dugu hainbat muga administratiboren arbitrarioritasun bidegabea: hori bere dibulgazio-lanaren zati bat ere bada. Horregatik, Nafarroa Beherea eta Nafarroa zergatik dauden bereiztuta azaltzerakoan honela dio:

Nafarroako erresumaz mintzatzen direlarik anitzek uste ohi dute gu Espainia-ri elgartu ginela gure nahikundez. Union hitz hori hola ulertzen dute gehienek. Eta hori ez da bathere egia⁵⁹.

Kurt Spang ikerlariak gogorarazten digunez, “el *docere* tiene su origen y su funcionalidad en la demostración y explicación intelectual y se dirige, por tanto, a la razón” (2005, 88). *Docere* delakoa nagusi da Manezaundiren testuetan; izan ere, irakurlearen adimenera ailegatu nahi du lehenengoz, sine-tsita baitago horixe dela bere alderdi afektibora (bere borondatera) sartzeko giltzarria. Estrategia honen barruan, *narratio*⁶⁰ eta *argumentatio*⁶¹ direlakoak txandakatzen ditu. *Narratio*a behar-beharrezkoa da bere zeregin dibulgatiborako, egitateak eta pertsonaien deskripzioak agertu behar baitira. Baina, azken finean, *argumentatio*aren oinarria baizik ez da, azken hau berau baita kontatutakoaren ondorio naturala. Hori bai, *argumentatio*aren gailurrak bihotzari edota emozioari egiten dio apelazioa, neurritz, bada ere, *movere* delako estrategia pertsuasiboari⁶² eutsiz. Hori dela-eta hainbat apelazio-irudi

⁵⁷ *Ibidem*, 172.

⁵⁸ ZUBIRI, 122.

⁵⁹ *Ibidem*, 143.

⁶⁰ “La exposición de hechos que han de juzgarse o que forman el objeto de decisión por parte de los receptores”, SPANG, 2005, 88.

⁶¹ *Argumentatio* delakoa berbaldiaren beste atal bat da, eta hauxe da bere helburua: “[...] tiene como objeto establecer credibilidad de lo expuesto o la del comunicador mismo”, *Ibidem*.

⁶² “El *movere* o *flectare* es la función persuasiva (*officium orationis*) que se dirige principalmente a los afectos a través de apelaciones apasionadas al público y con el fin de conseguir una emocionalización y una conmoción capaz de desencadenar una adhesión incondicional a la tesis defendida por el comunicador”, *Ibidem*, 90.

agertuko zaizkigu: apostrofea, harridurazko perpausak, galdera erretorikoak... betiere hartzailaren enpatia bilatu nahian.

3. FORMAREN ANALISIA

Aurreko ataletan gaiaren muinera edota gai nagusien zenbait ardatzetara hurbiltzen ahalegindu naiz. Orain, gai edota ardatz tematiko horien forma edo itxura zer nolakoak diren aztertzen saiatuko naiz.

3.1. Hizkera literarioa

Lehenengoz, argitu beharko litzateke ea bere idazkera literarioa den ala ez. Sarri askotan testu baten literaturtasuna ez da erraz bereizten, hizkera arrutean funtzio poetikoa⁶³ ere existitzen delako eta bien arteko muga hori zehatza ez delako.

Bere momentuan, Rosa Miren Pagola ikerlariak galdera hori berori egingen dio bere buruari. Hizkeraren alderdi dialektologikotik abiatuta, konturatzten da Manezaundik ahalegin berezia egin zuela hizkera herrikoia erabiltzen, hizkera biziko hainbat ezaugarri bilduz eta agertuz. Baina hizkera landua eta “literarioa” erabiltzen ere ahalegintzen da:

Alderdi biak elkartu nahi ditu, Luzaide-n eta Behe-Nafarroa-n erabiltzen den hizketa moldeaz maitemindurik bait dago, baina, pertsona ikasia eta espiritu sentibera eta landukoa denez, berez ateratzen zaio literatur errekurtsuez baliatzea ere. Onartzen du hizkuntza literarioa erdiesten saiatzen dela. Herriaren solasean biltzen ditu hitzak eta joskerak, baina gero berak lerratzen eta metatzen ditu adjektiboak eta sinonimoak, berak bilatzen ditu irudi eraginkorrak eta itzulunguru eta forma adierazkorak. Ez du, hala eta guztiz ere, erraztasunik eta jariorik galtzen. Mintzaira malgua eta berezkotasun aire haundikoa du. Zernahi esan nahi duela ere, beti lortzen du esamolde egoki eta axita, inoiz oztoporik aurkituko ez balu bezala. Oso gogoko zuten irakurleek, eta ez da harritzekoa, Manezaundi bete-beteko idazlea baita⁶⁴.

Aipamen hau adibidez janzte besterik ez zaigu falta, bertan gehien-gehiena esana baitago. Baina hori ondorengo atalean zehaztuko da.

3.2. Analisi formala

Hizkuntzaren alderdi batzuk hartu behar dira kontuan atal honetan. Alderdi horiek testuari nortasun berezia ematen diote eta hiru mailatan banatzen dira: foniko-fonologikoa, morfosintaktikoa eta semantikoa⁶⁵.

⁶³ José María Díaz Borque-ren ustez, hizkera literarioaren ezaugarri nagusia funtzio poetikoa da: “Pero en el texto literario, sobre todas las funciones del lenguaje como medio de comunicación (emotiva, referencial, poética, conativa, fática, metalingüística, lúdica) domina la función poética que supone centrar la atención sobre la propia forma del mensaje, es decir, que no sólo se presta atención al contenido sino a las características formales del modo de comunicarnos ese contenido [...]”, DÍAZ BORQUE, 55.

⁶⁴ PAGOLA, 1990, 14-15.

⁶⁵ Ibídem, 57.

3.2.1. Arlo foniko-folonogikoa

Arlo honetan ezin dugu azpimarratu aparteko fenomeno adierazgarririk. Prosa erabiltzen du Manezaundik, eta prosa horretan gutxi da hizkuntzaren soinuari edota mota horretako efektuoi eskainitako arreta⁶⁶. Salbuespen bakarretakoak interjekzioak⁶⁷ ditugu, elkarrizketetan sarritan agertzen direnak, ahozko estilo bizi eta adierazkorra irudikatzen oso baliagarriak eta biziak:

- Hea, Gaxuxa, ekharzkin berehala bi pinta [...] ⁶⁸.
- Bó, nik dakita, Manez ⁶⁹.
- Atx! [...] ⁷⁰.
- Alo, alo; nai duna ixilik egon? ⁷¹.
- Baaaaa!! [...] ⁷².
- Ai urde zerri haundia!!! ⁷³.
- Alo, heup, aitzina! ⁷⁴.
- Hum!... mehexkoak iduri zizkiak burdin horiek ⁷⁵.
- Guazen aitzina. Alaintso ⁷⁶! baduk hemen gasna ⁷⁷.

Interjekzioak deikiekin nahasten dira, “To” eta “No” deiki bereziak erabiltzen dituelarik; izan ere, deiki zentzuan ez ezik, harridura adierazteko ere erabiltzen dira:

- No, altxazkin; [...] ⁷⁸.
- To!...? ⁷⁹.

Prosaren eritmoak, bestalde, fonetika-fonologiarekin zerikusia badu⁸⁰, jakina. Prosaren eritmoa areagotzen edota markatzen duten fenomenoaren artean, zenbaitetan agertzen diren eskema batzuen errepikapenak daude⁸¹. Oso nabaria ez den arren, presente eta eraginkorra da hirukoiztasuna:

Batzuek (1) erraiten zuten aberats okhitua, urrez hantua zela. **Bertze-ek** (2), sos puska bat eginik, funts baten erosterat, eta emaztegai baten bilha heldu zela. **Bekhaitzkorrek** (3), aldiz, arditik ere etziela... ⁸².

⁶⁶ Jatorri onopatopeikoa duten hitz batzuk bai, lantzean behin erabiltzen ditu, hizkera herrikoia erabili nahi horrekin bat eginik: “eta... bunba!!!”, *Ibidem*, 46; “lilien aldaskatzea eta pinpirinatzea”, *Ibidem*, 193; “danba-danba”, *Ibidem*, 330; “brrr... luze bat ahotik yalirik”, *Ibidem*, 331. Sonoritate berezia duten hitzak ere erabiltzen ditu: “erran-merranak”, *Ibidem*, 62.

⁶⁷ “The utterance of a word or phrase expressive of emotion; the uttering of an exclamation [...]”, STEIN, 742.

⁶⁸ ZUBIRI, 28.

⁶⁹ *Ibidem*.

⁷⁰ *Ibidem*, 29, 56.

⁷¹ *Ibidem*, 30.

⁷² *Ibidem*, 46.

⁷³ *Ibidem*, 51.

⁷⁴ *Ibidem*, 73.

⁷⁵ *Ibidem*, 90.

⁷⁶ “Alaintso” eta antzerako hitz luzaidar adierazkorren esanahiaz jabetzeko Kamino, Salaberri eta Zubirik (2004) idatziriko artikulua ibiltzen ahal dugu.

⁷⁷ *Ibidem*, 333.

⁷⁸ *Ibidem*, 30.

⁷⁹ *Ibidem*, 61.

⁸⁰ DÍEZ-BORQUE, 63-68.

⁸¹ Honek lotura dauka morfojoskerarekin ere, jakina. Euskal prosan erreferentea den Axular idazleak ere baliabide foniko-eritmitiko hau erabili zuen bere prosari halako eritmoa ezartzeko. Errepikapen-printzipioa da horretan nagusi, SALABERRI MUNOIA, 1998, 91.

⁸² ZUBIRI, 62.

Erritmoaz ari garenez, esan behar da erritmoa moteltzen duen Manezaundiren beste joera bat dela esaldiak moduzko perpausez kargatzea. Jario-tasun-zentzua eransten dio, zalantzarik gabe, bere prosari, baina azkartasuna gutxitu.

[...] eta hortakotz egungo bilkura da gerthakari haundiena eta ospatsuena, denak berriz elkartu nahiz anaitasun ederrenean Gernikako zuhaitzaren itzalaz geriztuak. Aitzineko mendeetan denen artean bat eginik erresuma edo aberri oro eta azkarra, helduak ginen Auñamendiko eta Astobizkarko bi alderdietan, ipharraldean eta hegoaldean, Ebro eta Adur ibaien artean⁸³.

Gazteriak, eta bereziki nexkatoak, beren herrietan ikhusiz andere kanpotiarrak azken modazko yauntzietan, liluratzen eta xoratzen dira aphaindura eder baten aitzinean⁸⁴.

Gogoko du, eta honek ere erritmoa moteltzen du, menpeko perpausez hornituriko esaldi oparoak egitea, barnean denborazkoak, konpletiboak, erlatibozkoak eta moduzkoak dituztela. Hona hemen esaldi luze bat (hogeita hemeretzi hitz ditu), aditz nagusi bakar batekin, zenbait menpeko perpausekin “kargaturik”:

Bainan noizian-behin, karrikarat yausten direnean menditik, eta ostatuan sartzen direlarik zintzuraren bustitzerat, **kausitzen dute** norbait, noiztenka, hiri haundi batian izan berria, espantu gaitzetan ari dena haundikeriak kondatzen, hau eta hura ikhusi dituela, eta denak hari so daude-nak tetelduak⁸⁵.

Eta erritmo biziartzeko beste baliabide bi, galdera erretorikoa eta harri-durazko perpausa ditugu, Enrike Zubirik sarri-sarri tartekatzen dituenak. Galdera erretorikoa irakurlea pasibotasunaren lozorrotik ateratzen du eta galdera bati erantzuteko atezuan jarri, nahiz eta erantzuna mentala baino ez den izan behar. Harri-durazko perpausa, berriz, aldar-tearen txinparta bat da, prosa bizkortzera datorrena.

Behinere ikusi duguia holakorik? [...] Zer goresmenak ez dute merexi holako gizonak!⁸⁶.

3.2.2. Arlo morfosintaktikoa

Dagoeneko, prosaren erritmoa aztertu dudana ataltxoan, arlo morfosintaktikoarekin lotutako zenbait ohar eginak izan dira. Manezaundiren gogoko perpaus mota hauek, bere prosaren aberastasuna agerian uzteaz gain, erritmo bat ezartzen laguntzen dute.

Baina badago bestelako oharrik ere egitea. Esaterako, eta morfosintaxiari gagozkiola betiere, badago zehaztea zenbateraino den eraginkorra aurreko tradizioak Manezaundiren prosan. Lan honen hedadura mugatuak, berriz, ez digu uzten gai hori sakontasunez jorratzen, baina zertzeladaren bat egingo dut, geroagoko azterketa konparatiborako baliagarria izanen delakoan.

⁸³ *Ibíd.*, 132.

⁸⁴ *Ibíd.*, 261.

⁸⁵ *Ibíd.*, 69.

⁸⁶ *Ibíd.*, 141.

Tradizio literarioa aipatuz gero, Axularren lana nabarmentzen zaigu. Manezaundik berak artikulua oso bat eskaini zion (*La Voz de Navarra*, 1934-v-08) “Gure gizonak” izeneko artikulua-sailaren barruan. Haren prosa joriaren estiloa nolabait imitatzen saiatzen delako susmoa dugu, prosa-tradizio bati jarraipena eman nahian edo. Edozein kasutan, idazteko eredutzat proposatzen duela argi dago, aipatutako artikuluan bertan esaten denez:

Utzi dauku eskuaraz libururik den ederrena eta yoria, Geroko Gero miresgarria, zointan denek kausitzen ditugun eskuararen ikhasteko erakapen argienak, eta ithurburu garbienak gure mintzaiaren mamia yakiteko; yoskera eta egindurak, itzulikak eta aditza hain eskualdunki eginak, nun begietatik eta gogotik ez dezakegu utzi, liluratuak, liburu hori gure eskutan behin erorizkioz⁸⁷.

Kontua da, joskerari dagokionez betiere, badirela zenbait joera komunak direnak urdazubiarraren eta luzaidarraren artean. Honek azterketa zehatza goa mereziko lukeen arren, aipa ditzadan adibide batzuk. Bakoitzen maiztasunak desberdinak diren arren, biek jotzen dute isokolon⁸⁸ delako joera sintaktikora. Axularren *Gero* liburuko edozein orrialde irakurrita honelako kasuak erruz aurkitzen dira, Patxi Salaberrik bere estudioan erakutsi zuenez (1998, 93-95). Manezaundiren testuetan, maiztasun berdinarekin ez bada ere, honelakoak ugari aurkitzen dira. Hona hemen plurimenbrazioaren adibide batzuk, hirukoiztasun-kasu batetik hasita:

[...] hogoita hamar urthetan, gazteriaren harrokeriak, arinkeriak eta yostetak alde bat utzirik, [...] ⁸⁹.

Zergatik eta norenganik ditugu Nafarroan hainbeste ontasun eta bake, hainbeste eskola, hainbeste bide eder, eta bertze?⁹⁰.

Plurimenbrazioak egitura anaforikoak ere ahabidetzen ditu, ahozko estiloaren isla izanik.

Hamairu garren mendetik geroz, berextuak, baztertuak, bizi izan gira: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba alde batetik; Naparroa bestetik; [...] Ospe haundiko bilkura hortan ditugu gure gogoa eta bihotza zuen erabakia- ren igurikan, beretik yalgiko baita Eskual-herria-ren zoriona edo nahigabea, bozkarioa edo tristura⁹¹.

Elipsia, ahozko estiloaren isla baita ere, sarritan ageriko zaigu, esate baterako, leku-deskripzioetan. Karlo Magno handia erasotua izan zen lekua deskribatzerakoan, adibidez, adizkiak eliditzen dira, irudien segidari azkartasuna emanez:

Mehargune hertsia, erreka xumetik ezker eta eskuin malda xutak eta legunak, harri xehe eta legartsuak. Eta gainak harkhaitzez brokatuak, doi- doia xutik egoiten ahal direnak iduri⁹².

⁸⁷ *Ibidem*, 111.

⁸⁸ “Figura retórica consistente en la correspondencia simétrica entre dos o más miembros de un conjunto, ya sea éste una frase, una oración, un período o una estrofa. Existen diversos tipos de isocolon: atendiendo al número y extensión de sus miembros, puede ser bimembre (dicolon), trimembre (tricolon), cuatrimembre (tetracolon), etc. [...]”, ESTÉBANEZ CALDERÓN, 1996, 575.

⁸⁹ ZUBIRI, 118.

⁹⁰ *Ibidem*, 131.

⁹¹ *Ibidem*, 132-133.

⁹² *Ibidem*, 300.

Azkenik, modua adieraztearren edo, gerundio- eta partizipio-itxura edo zentzua duten formak ageri dira oso modu oparoan:

Gauzarik ederrena eta bihotza hunkitzen duena da ikustea Auritzetik Orriagarako bide zabal xuxen artan, oianez **inguratua**, gurutzedunak beren pizu haundia bizkarrian, gurutzia goora **atxikia** beso **altxatiez**, eta arrosarioa **kantatzen** ozenki, apezaren otoitza **errepikatzen**⁹³.

3.2.3. Arlo semantikoa

Enrike Zubiriren artikuluak irakurtzerakoan, oso erraz konturatzen da bat haren lexikoaren aberastazunaz. Hizkuntzaren lanketa bat nabari da egile honengan: berak halaxe aitortu zuen behin baino gehiagotan eta, gainera, hori berori testuetan frogatzen du. Margolaria izan zen Manezaundi eta bere testuetan, batez ere naturari atxikiriko kontuetan, margolariaren begi zorrotza hiztegiaren aberastasunean gauzatzen da sarritan, betiere mundu tradizionalari maitasunezko begirada bat zuzenduz:

Ardiak eta behiak bere bulunba eta yuare ozenekin lerro lerro yautsi dira mendietako bide xendreeri beheiti, zakhurraren gerizan eta artzainaren histu saminaren manuz⁹⁴.

Hizkuntzaren lanketa izadiko izakien izenen ezagutzan ere erakusten da, zenbait zerrendatzetan agertua. Izan ere, jaiotzez nekazari-herri batekoa bazen ere, hirian (Iruñean) bizi zen eta beste hiri batzuetan ere bizi izan zen (Madrilen eta Parisen). Horrek ez zion lagunduko nekazaritza eta izadiari lotutako hiztegia aberasten. Beraz, berenberegiz egindako lanketa hori hainbat ahapalditan antzematen da, neurri handi batean bere sorterrian egindako udako egonaldietan burutua, ziurrenera. Hona hemen zerrendatze horietako bat:

Urria ilhabete eztea, ihiztarien loria; xixpak bere erdoilduraz garbiturik eta urinduak, hor dira haize hegoaren beha. Usoak, biligarroak, uzkinazoak, pikalaportak, zozuak, apezxoriak, papogorriak, hots, hegaztin mota guzietarik milaka eta milaka iraganen dira errekarri goiti, mendi lephoen buruz, pago eta haritz ezkurrez betherik, beren papoa nasaki ase ondoan. Euntzaro, Ehialepho, Matxarde, Lindux!! gaixo xoriak, itsutuak doatzi beren eriotzerat⁹⁵.

Bere adierazkortasunari ñabardurak ezarri nahian edo, anplifikazio delako irudira jotzen du, antzerako esanahia duten hitzen bidez eraikitzen ari den esanahi berriaren koordenadak zedarrituz. Koordenada horien kopurua, Axularren *Geron* bezala, hirukoa izaten da askotan, hirukoiztasunari eutsiz:

Urtheke sasoin ederrenean sartuak gira. Alderdi guzietarik edertasunak inguratzen gitu. Zugaitzak **aldaskatzen**, lili usainak gure uzna **loriatzen**, xorien kantu xaramelek gure beharriak **balakatzen**⁹⁶.

⁹³ *Ibidem*, 311-312.

⁹⁴ *Ibidem*, 320.

⁹⁵ *Ibidem*, 178.

⁹⁶ *Ibidem*, 213.

Manezaundi ez da konnotaziozalegia, baina bai konparaziozalea eta, gerotxoago ikusiko denez, lokuziozalea. Konparazioak, ez dira bere berbaldia hotsandiko bilakatu nahiean erabiltzen, batzuetan hizkera bizia eta, beste-tzuetan, hizkera sentiberatsua, sorraraztearren baizik:

Gure Eskualherri miresgarria uda haste huntarat helduzkioz yauntzi eta edergailu ederrenetarik brokatzen da, nexkato panpina eta lakrikun bat iduri⁹⁷.

[...] azeriek bezain untsa ezagutzen dute⁹⁸.

[...] berria hedaturik suia lastoan bezain laster⁹⁹.

Gain hartaik ikhusten nitikan etxiak ttitta xuri eta gorri idurikoak, eta yendiak kukusoen heinekoak...¹⁰⁰.

[...] zozo xuri bat bezain nekhez¹⁰¹.

Heldu hiz hire yauntzi ederrekin aphaindia, nexkato panpina bat iduri, dena edergailu, dena edertasun gure begien liluratzeko, eta gure bihoztian bozkarioa sarrarazteko¹⁰².

[...] erle kofoin harrotu bat iduri¹⁰³.

Funtzio poetikoaren adierazgarri ditugu lokuzioak, hizkuntzaren espresibitatea areagotu eta hizkera eufemistikoa sortzen dutenak¹⁰⁴. Lokuzioetan ugaria den arren, ez da hau guztien berri emateko lekua. Hori bai, esan behar da sarritan zeharo arruntak diren lokuzioak erabiltzen dituela¹⁰⁵, hainbat hizkuntzetan komunak diren irudiak erabiliz. Esaterako, elurra adierazteko “mihise zuriaren” irudia erabiltzean:

Agertu zauku azkenian elhur demuntre hori, danba, danba yaunts-ahala erortzen zerutik, oro estaliz mihise xuri batekin, [...] ¹⁰⁶.

Oso erabilia den azeri zaharraren irudia, “zuhurtasuna” adierazterakoan ageri da. Esaterako, Napoleoni buruz ari denean honela dio:

Axeri zaharrak etsaiaren lurretan sartzeko etzuen maldarik igan nahi izan¹⁰⁷.

⁹⁷ *Ibidem*, 221.

⁹⁸ *Ibidem*, 353.

⁹⁹ *Ibidem*, 62.

¹⁰⁰ *Ibidem*, 93.

¹⁰¹ *Ibidem*, 121.

¹⁰² *Ibidem*, 193.

¹⁰³ *Ibidem*, 325.

¹⁰⁴ IZAGIRRE, 1981, XVII-XVIII. Izaera eufemistikoa duten edo izan dezaketen lokuzioak direla eta, Enrike Zubirik badu mordotxo bat, zeinetarik ez gutxik adiera politikoeekin zerikusia baitute. Izan ere, politika, eztabaida edota tentsio sozialak sorrarazteko gaitasuna duen neurrian, lokuzio eufemistikoak asmatzeko dimentsioa da: “Zoazte, zoazte holakorik ikhustea **Ebro-tik bertze aldeko behere heta-rat...**”, “Espainiarat” adierazteko erabili du, adibidez, ZUBIRI, 150.

¹⁰⁵ Badira, hala ere, horren arruntak –eta horregatik preziatuagoak– ez diren lokuzioak: “Burdina hain gogorra izanik ere azkeniak guritzen baita”, *Ibidem*, 130. Esaera zaharretan, berriz, murrizta da, salbuespenen bat kenduta: “Ezagutzetik sortzen da amodioa» dio erran zaharrak”, *Ibidem*, 135; “erran zaharrak diona: «Ziminoa goitiago eta uzkia ageriago», *Ibidem*, 230.

¹⁰⁶ *Ibidem*, 180. Beste batzuetan ere agertzen dira antzerako irudiak: “[...] guziak beren mihise xuriarekin dira”, *Ibidem*, 204.

¹⁰⁷ *Ibidem*, 303. Beste aunitzetan ere agertuko zaigu lokuzioaren zeregina betetzera datorren metafora lexikalizatu hau: “[...] axeri zaharra baitzen”, *Ibidem*, 83; “[...] Battit eta Erramun, Geaxan eta Piarrex-i. Lauak pilotari trebeak ziren, bainan azkenak zaharxagoak, bai eta axeriagoak ere...”, *Ibidem*, 72.

Ixiltasuna adierazteko oso irudi grafikoa den “ezpainak josirik” izatea ere agertzen da:

[...] hitzik ahotik yalgi gabe, **ezpainak yosirik**¹⁰⁸.

“Apaindu” edota “edertu” aditzak baino, batzuetan nahiago du askoz grafikoagoa den “panpinatu” aditza, hedadura mugatua duen arren:

[...] hasi ziren **panpinatzen**, ba eta ezpainak poxiño bat gorritzen ere arrotzaren behakoa finkarazi nahiz beren begitaratean¹⁰⁹.

Arlo semantikoari lotutako beste kontua irudi erretorikoetan gauzatutako jarrera erretorikoa dugu, berorren bidez zerbait adierazi egiten zaigulako. Axularrek egiten zuen moduan¹¹⁰, taxuketa dialogikoari eusten dio Manezaundik, nahiz eta sarritan modu nahasian izan. Testuen tipologia egitean konturatzeko da bat antzeppen hutsak direla testu asko. Narratiboak diren testuen artean ere elkarriketa ugaria izaten da¹¹¹. Horrezaz gain, testu argumentatiboetan ere elkarriketa antzeko taxuketa ageri da zalantzarik gabe. Horrela egileak dabilen gaia eguneroko bizitzarekin zerikusia duen kontu bat bezala hartzen da, irakurlearen inplikazioa erraztuz, edota harekiko konplizitatea bilatuz. Irakurlearekiko fikziozko elkarriketa horretan, lehen pertsona gramatikala, egileari dagokiona, agertuko da aitorten kutsuko perpausetan: “[...] Badakit anitzek errain dutela [...]”¹¹²; “[...]Ez nuke nahi [...] Nik uste dut [...]”¹¹³.

Taxuketa dialogikoaren beste ondorio bat apostrofearen joera dugu, Axularren *Gero* liburuan ere ugaria dena¹¹⁴:

Ez dezazuela asma, irakurleak, nik erranak baduela den gutieneko hanpurus erakasnahia, zeren eta eskualdunen azken lerroan edo herrun-kan nizalakotz¹¹⁵.

Irudi patetikoei gagozkiola, harridurazko perpausak eta galdera erretorikoak ere nabarmentzen zaizkigu Enrike Zubiriren lanean, eredu dialogikoaren pean ondo baino hobeto uztartuz, Axularren *Geron* ere gertatzen den moduan¹¹⁶.

Adi zazue, [...] Zergatik eta norenganik ditugu Nafarroan hainbeste ontasun eta bake, hainbeste eskola, hainbeste bide eder, eta bertze? Gure fueroari esker¹¹⁷.

¹⁰⁸ *Ibidem*, 60; “[...] zeren eta ohartzen niz aspaldidanik arrunt ixilik daudela eskual idazle guziak, **ezpainak yosirik**”, *Ibidem*, 187. “Hitz egitea” edo “esatea” bezalako kontzeptuei loturik, badira beste-lako lokuzioak, zeharo arruntak bai, baina gaur egun ez horren erabiliak: “[...] mihian koropilorik gabe”, gauzak klarki esateko arazo edo lotsarik ez izatea adierazi nahiean, *Ibidem*, 72.

¹⁰⁹ *Ibidem*, 62; “[...] beren senhar zenaren galtzeaz nigarretan eta auhenetan ithoak egon ondoan, soberaxko zalhu hasten direla **panpinatzen** eta aphaintzen, bere edertasuna ohartarazi nahiz...”, *Ibidem*, 82; “[...] denak hari so teteldurik, **perttolikeriak** erranikan ere, **bere ahotik elhausturia burrustan badariolarik**”, *Ibidem*, 138.

¹¹⁰ SALABERRI MUÑO, 1998, 84-87.

¹¹¹ BARANDIARAN, 2007, 24-25.

¹¹² ZUBIRI, 112.

¹¹³ *Ibidem*, 232. Aipatu berri ditugunen antzerako aipamenak, ondorengo hauek: “[...] Nik ez ditut liphistik pitzarazi nahi, ez eta ere burukoi agertu baten edo bertzearen alde, bainan bakharrik nahi nuke argitasun doi bat emaiteko xedean”, *Ibidem*, 282; “Nik ikhasten hasi behar banuke dremendenik durduzarik gabe hauta nezake eskualdun menditarren solasaldiak [...]”, *Ibidem*, 284.

¹¹⁴ SALABERRI MUÑO, 1998, 88-89.

¹¹⁵ ZUBIRI, 284.

¹¹⁶ SALABERRI MUÑO, 1998, 89-90.

¹¹⁷ ZUBIRI, 131.

Espainiak egin izan behar balitu gure erregebideak, ukhain ginituena orai ditugunak, 2.600 kilometro hurbil, eta heien arthean sei mendiz bertaldeko Eskual-herrian sartzen direnak? Atx, ze aphentzia!¹¹⁸.

Harridurazko perpaus horiek interjekzio bilakaturik agertzen dira sarri askotan, azkeneko adibide honetan ikusten denez.

4. TESTUA GIZARTEAREKIKO LITERATURA-KOMUNIKAZIO LEGEZ

4.1. Testua komunikazio legez

Ondotxo ezaguna denez, testu literarioa mezu bat da, komunikazio ekin-tza bat burutzen duena¹¹⁹. Orain arte komunikazio prozesuaren funtzio poetikoari erreparatu diot nagusiki, baina horri berorri soilik ez. Arlo semantikoaren barruan, esate baterako, irudi patetikoak aztertuak izan direnean, testuaren funtzio konatiboari erreparatu zaio, mezuaren hartzailearekiko jarre-rak islatzen baitira irudi horien bidez.

Aukeratu dudan Enrike Zubiriren corpus honetan, testua komunikazio-artefaktotzat hartuz gero, berehala konturatzen ahal gara testu hauek duten funtzio anitzez. Jakina, testuen tipologiari guztiz lotuta dago funtzioen banaketa. Hau da, nolako testu mota, halako komunikazio-funtzio nagusia, nahiz eta testu batean funtzio bat baino gehiago nabarmentzen den.

Funtzio poetikoa, nonbaitetik hastearren, presente dago testu gehien-gehienetan, nahiz eta bere nagusitasuna zalantzan jartzen ahal dugun. De facto, esango nuke ez dela funtzio nagusia testu anitzetan, oso presente egon arren. Poetikotasun gradu altuena paisaien deskripzioekin batera antzematen da, non naturarekiko lilura eta bere sorterriko paisaiekiko atxikimendua islatzen diren. Izadiaren edertasuna, lexikoaren adierazkortasun eta kolorean gauzatzen da, besteak beste, prosopopeiara iritsi arte. Halere, arestian aipatu diren hainbat irudiren presentziak eta, azken finean, edertasunaren bilaketak berak literario bilakatzen dute Enrike Zubiriren corpus hau. Gainera, jadanik aipatuak izan diren antzeppen hutseko artikuluetan, argi eta garbi dago (modu esplizituan egon ez arren) herri-hizkeraren edertasuna eta balioa agertzeko asmoa, herrikoitasunaren edertasunaren beraren islatzat.

Funtzio emotiboak (edo afektibo-baloratiboa, batzuek nahiago dutenez) ere ia-ia testu guztiak ukitzen ditu; izan ere, Manezaundi ez da errealitatearekiko jarrera hotza duen horietako bat. Enrike Zubiri konprometitua sentitzen da gizartearen gora-beherekin¹²⁰, kontu urbanistiko eta artistikoe-

¹¹⁸ *Ibidem*, 150. Harridurazko perpausen zerrendarik ez dut emango, baina bai pare bat adibide gehiago: “Egin du bide geroztik elhe arrotzak!”, *Ibidem*, 152; “Eta zer da hori? Zer den hori! [...] Debru sorginak! [...] Eta nolakoak diren haatik emazte horiek! [...] Baina denak debaldetan!”, *Ibidem*, 243-244; “O! Haur denborako oroizapenak! Ez dira nolnahi ahanzen”, *Ibidem*, 319.

¹¹⁹ DÍEZ BORQUE, 117-119.

¹²⁰ Asko dira adibideak. Esate baterako, hogeita hamarreko hamarkadan baskongaden eta Nafarroaren artean estatuto bat eratzekotan zegoen, azkenean baskongadetan bakarrik gauzatu zena. Horri buruz baditu hainbat iruzkin sutu: “Nafartarrak, iduriz, axola haundirik gabe gaude, uzkur, nagitasunean lohartuak, Estatutoaren buruz. [...] Eta azkenekoz berri zoriongarri bat aita-amentzat. Estatuto horrekin zuen seme maiteek beren soldadogoa hemen eginen dute, Nafarroatik yali gabe, etxeari hurbil. Zer da ederragorrik gaixo amentzat?”, *Ibidem*, 130-131.

kin¹²¹, hizkuntzaren alderdi soziologiko eta identitarioekin... Bere “maitasuna” iragartzearen bidea aukeratzen du, horren guztiaren aurrean bere testigantza agertzearen. Eta hori guztia nola bururatzen du? Aipatuak izan dira jada zenbait interjekzio (arlotan fonetikoari dagokion atalean, adibidez) eta horien bidez haren barne-atxikimenduak ageriago uzten ditu luzaidarrak.

Funtzio mentalinguistikoak espero baino hedadura handiagoa dauka. Halere, euskara bera bere grina edo zaletasunetako bat izanik, ondorio logikotzat hartzen ahal dugu joera metalinguistiko hau. Orduko Nafarroako euskaldun berrien hizkeraz aritu zen zenbait artikulutan, nola gazteleraz¹²² hala euskaraz¹²³. Antzematen da, bestalde, bere kezka metalinguistikoa bat datorrela bere hizkera hobetzeko grinarekin; izan ere, Jakobsonek dioen bezala, metalengoiari behin eta berriz ekiteak norberaren ama-hizkuntzan sormena eta maisutasuna garatzea dakar¹²⁴. Horrezaz gain, Manezaundiren artikulua idatziak izan ziren bost urteetan zenbait euskal girotan modan zegoen garbizalekeria ez du eredutzat hartzen, eta horren zergatia azaltzen du behin baino gehiagotan, berriro ere hizkuntzari buruzko berbaldia sortuz¹²⁵. Bestalde, beste zaletasunetako bati tiraka eginez, euskalkien kontuari eusten dio, hizkuntzaren hainbat aipamen zehatz eginez¹²⁶ edota euskalkien arteko aldeei erreparatu¹²⁷.

Funtzio erreferentzialari¹²⁸ aipamena egitea dagokigu orain. Denotazioa nagusi da aukeratu dudan corpusean, argi dago; baina Enrike Zubirik ez du sahiesten balio konnotatiboa duten irudi konparatiboak erabiltzea, arestian erakutsia izan den legez, azeriaren irudiarekin, kasurako. Bestalde, herri xumearen elkarrizketetan, pertsonaiek eurek esaten dutenaz aparte, herri hizkeraren adierazkortasuna eta bizitasuna jarri nahi ditu begibistan¹²⁹, nolabaiteko konnotazioari eutsiz eta bere berbaldia aberastuz. Beraz, funtzio erreferentziala bai, baina –poetikotasuna goi gradukoa izan ez arren– konnotazioari zeharka eta etengabeko keinuak eginez.

Aipatu ditudan funtzio hauei erreparatu eta gero, berehala konturatzen da bat balio pertsuasiboak jaun eta jabe direla, nahiz eta sarritan pertsuasio-prozesua zeharka burutzen den; hau da, balio ludiko (herri-kutsuko kontaki-

¹²¹ Urbanistikari buruzko testu gehienak, gazteleraz idatzi zituen, baina (PAGOLA, 1990, 13). Hala ere, hirigintzari egiten dizkio erreferentzia ugari han-hemenka (ZUBIRI, 322-324).

¹²² PAGOLA, 1990, 13

¹²³ ZUBIRI, 106, 121, 141, 259, 267, 284.

¹²⁴ “A constant recourse to metalanguage is indispensable both for a creative assimilation of the mother tongue and for its final mastery”, JAKOBSON, 1980, 91.

¹²⁵ Halaxe azaltzen du Joxemiel Bidador ikerlariak (2004, 221), eta halaxe ikusten dugu hainbat aipamenean (ZUBIRI, 106, 269-270, 294).

¹²⁶ *Ibidem*, 253, 257, 282-283, 293-294.

¹²⁷ *Ibidem*, 281, 386-387.

¹²⁸ DIEZ BORQUE, 118.

¹²⁹ Joera hau Manezaundiren garaiko euskal hizkuntzaren egoera diglosikoaren ondorio garbia. Beharrezkotzat ikusten da euskal literatura aztarna etnografikoak aurkitu, bildu eta bersortzea. Herri hizkera, herri xumeen esamoldeak, elkarrizketa pindartsu eta adierazkorak literaturara ekartzean burutzen da hori guztia. Halaxe azaltzen du Jon Kortazar akademikoak: “Gure literaturan erraz aurkitzen ditugu elementu folkloriko, etnografiko eta mitikoak, behin eta berriro landuak eta erabiliak”, 2002, 53. Herriko kutsuko pasarte edota kontakizun labur horiek deskribatzean, horrela zioen Luis Mitxeleak: “La ficción no ha tenido gran cultivo entre nosotros, más allá del relato oral. Se han elaborado reiteradamente sin grandes pretensiones literarias temas populares, muchas veces con tendencia moralizadora [...] con mayor variedad y amplitud, los cuentos de Enrique Zubiri “Manezaundi””, 1988, 157.

zunetan) edo informatiboak (historiari buruzko artikuluetan, adibidez) oso presente eta oso ondo garatuta agertzen dira eta hori guztia tresna erakargarria bilakatzen da pertsuasiorako.

4.2. Testua gizartean

Lantxo honen hasieran jada, azterketa hau kokatze aldera, nahikoa datu eskaini dira Manezaundiren testuei buruz (“kanpo fasea” deituriko hasierako atalean) gizartearekiko harremanak zedarrirituz¹³⁰. *La Voz de Navarra*, *Eskualduna*, *Euzkadi*, *El Día* eta *Argia* aldizkarietan idazten zuen. Hedapen jakineko aldizkariak ziren hauek. Aukeratu dudan Manezaundiren corpusa euskaraz idatzita dago. Beraz, pentsatzekoa da, corpus honi dagokionez behintzat, irakurleko murrizta izanen zuela, ez garai hartako Euskal Herrian euskaldunen dentsitatea gaurkoa baino bajuagoa zelako, ezpada garai hartan orokorrean irakurtzeko gaitasuna –eta zehatzago esanda, euskaraz irakurtzeko gaitasuna– zutenak gaur egungoak baino dezente gutxiago zirelako. Hala ere, XX. mendearen hasierako kultura giroak, hein handi batean Aranatarrek bultzaturikoak¹³¹, irakurle berri –eta sutsu– batzuk ernarazi zituen, euskal literaturaren aldeko mogimendu xume baina gogotsua sortuz.

Bestalde, Enrike Zubiri Eusko Alderdi Jeltzaleko kide egin zen. Horregatik pentsatzekoa da Manezaundik bere testuen jasotzaileak EAJko kideak izanen zirela. Ez du ematen horrela denik, ordea. Izan ere, ezaguna da *Eskualduna*, *El Día* eta *Argia* aldizkarietako irakurle batzuk ez zirela ezta abertzaleak ere. Baina noiz edo noiz Manezaundiren artikulua irakurri bazituzten, euskaldunak bai, izanen ziren. Beraz, euskaltasuna da Manezaundik darabilen atea beren arimen barrura sartzeko edo, beste hitzekin esanda, beraiek pertsuaditzeko.

Gainera, Nafarroa aldeko euskarari edota, zehatzago esanda, Nafarroa Behereko euskalkiari eustean, argi dago hizkera hori bultzatu, landu eta hedatu nahi zuela: bertako hitzunik irakurzaletuz eta euskaldun berriei literatura-hizkera jakin baten eredia eskainiz.

Jarrera altruista baten aurrean gaude; izan ere, lan honen sarreran aipatua izan denez, Manezaundik ez zuen bere idazkietatik bizitzeko beharrik, bestelako lan finkoa baitzuen (irakaslea zen Iruñeko “Artes y Oficios” es-

¹³⁰ José María Díez Borque-k zehaztutakoa kontuan hartuko dut, batez ere. Hala ere, ezin da ahaztu literaturaren soziologiaren arduratu direnen irizpideak. Esaterako, Alan Swingewood-ek ederki zehazten duenez, literaturaren soziologia zenbait ikuspuntutatik egin daiteke. Ikuspuntu horietako batean, literaturaren produkzioari eta idazlearen egoera sozialari erreparatzen zaie: “The second approach to a literary sociology moves away from the emphasis on the work of literature itself to the production side, and especially to the social situation of the writer”, SWINGEWOOD, 1972, 17. Alderdi hau lantzen lehenengoetakoa Robert Escarpit franziarra izan genuen. Literaturaren soziologia egite aldera, Escarpit-en ustez hizu gauza ziren kontuan hartu beharrekoak: egilea, produktua eta publikoa. Izan ere, “if we wish to understand writers in our time, we cannot forget that writing is a profession? or at least a lucrative activity? practiced within the framework of economic systems which exert undeniable influences on creativity. We cannot forget, if we wish to understand literature, that a book is a manufactured product, commercially distributed and thus subject to the laws of supply and demand. We must see that literature is, among other things, incontestably, the production segment of the book industry, as reading is its consumption segment”, ESCARPIT, 1965, 2.

¹³¹ Modu eskematikoan bada ere, giro horren ezaugarriak, akatsak eta lorpenak agertzen dira *Euskal testuen azterbideak* izeneko lanean, ETXEBARRIA, 1985, 77-79.

kolan). Ez dut frogatzerik izan diru-sarrerik izanen ote zuen bere aldikako artikulua *La Voz de Navarra*, *Eskualduna*, *Euzkadi*, *El Día* eta *Argia* aldizkarietara bidaltzearen. Halere, susmoa dut, kolaboratzailea izanik, oso ordainsari eskasa izanen zuela (izan zuen kasuetan), hedadura eskaseko aldizkariak izanik eta euskal kulturaren aldeko militanteen kolaborazioekin eginikoak zirelako.

Beraz, aipatutako jarrera altruista horrek sorrera bat izan ote zuen galderari erantzun nahian, gertuko gizartearen egoera politiko eta kulturaren aurrean zuen jarrerari erreparatu beharko diogu. Euskaldunen kontzientzia eta nortasuna eratzen laguntzeko berebiziko grina erakusten du, inolako onura materialik emango ez ziona, geroagoko Gerra Zibilean (eta geroago ere bai) argi geratu zenez. Izan ere, Manezaundirentzat garrantzitsua da oso euskaldunek beren nortasuna eta kulturarekiko hartzen zuten jorkaera, bertan omen zegoelako “Pizkundearen”¹³² giltza. Jakina, gazteleraz ere idazten zuen, erdalduenengana ere iritsi nahi zuelako. Baina, euskaraz jorratzen dituen gaien polikromia ikusita eta beraietan jartzen duen begirapenaz jabetuta, lehentasuna horretan zuela antzematen da. Bazekien, halere, bere irakurleen kopurua oso altua ez zena izango: euskaldunen kopurutik portzentaje apal bat, tartean eskolatutako euskaldun batzuk eta baserritar giroko beste irakurle saiatu batzuk. Azken hauek ditu jomugatzat eta horregatik bere artikuluetako kopuru gogoan hartzeko batek hizkera eta gai herrikoiak erabiltzen ditu, modu ludikoan baita ere, haiek erakartzearen. Baina, esan bezala, jarduera hori zeharo kamustua geratu zen Gerra Zibilarekin batera.

Zorionez, Enrike Zubiriren lanaren eraginak garai haiek gainditu eta gureganaino heltzea lortu du. 1958. urtean, Angel Irigarayk Manezaundiren hogeita bederatzi artikuluko bilduma bat eman zuen argitara. Liburu hartan berean Pablo Fermin Irigaray *Larreko*ren beste bederatzi artikulua biltzen dira. 1985an Jose Maria Larreak eta Pedro Diez de Ultzurrunek *Nafarroako Euskal Idazleak (I)* izeneko liburua argitara eman zuten Manezaundiren hiru artikulua bilduz. Eta, zalantzarik gabe, bildumarik zabalena Rosa Miren Pagola (1990) ikerlariak editatu zuen. Hainbat aldizkaritan sakabanaturik argitaratutako artikulua bildu eta *Artikulu bilduma* izenburupean eman zituen argitara. Euskarazko artikuluen bilduma zen hori. Beraz, bere mezuak eta bere prosa ederrak gainditu dute hainbat urteren mututasuna eta gaur egungo euskaldunarengana heltzeko moduan aurkitzen dira.

¹³² Pizkundera izeneko mogimenduaren saldoak Nafarroara ailegatu ziren XX. mendearen lehenengo hamarkadetan. Euskararen Adiskideak izeneko elkarteak lan gaitza burutu zuen Manezaundiren garaian. Euskaltzetasuna piztearen ere hainbat ekitaldi burutu ziren: “[...] nazionalismo politikoaz bat, nazionalismo kulturala garatu zen ere, Primo de Riveraren Diktadurapean hasi Euskal Jaiak 1936ko gerlarekin azkendu zirela. Hainbat lekutan eginak ziren ordurako: Otsagi, Auritz, Leitza, Berroeta, Erro, Etxaleku, Oroz-Betelu, Eugi, Izaba, Ezkarotze, Eaurta. [...] huntzaz landara “Euskeraren Eguna” zuten Iruñean apailatu eta baita haur-gazteendako idazlan-norgeiagokak ere”, LARRA, 1985, 33.

Ondorioak

Enrike Zubiri Manezaundik pertsuasio lan handia burutzen du bere artikuluekin, hainbat modutara burutu ere. Kontu historikoak azaltzean, idazle euskaldun-nafarrari nortasuna zenbait gertakari historikotan gauzatua izan dela erakutsi nahi dio (euskal hizkuntzari lehentasuna emanten dion arren), eta bere izaerari eutsi behar diola, benetako nortasun nafarraren aurkako hainbat eragile poteretsu jardunean ari baitira. Kutsu herrikoidun kontaktizunetan, berriz, nortasunaren aldeko berbaldia ez da esplizitua izanen. Berbaldi eta elkarrizketen ederra bera zeharkako pertsuasio-metodoa da, herritar jatorraren, kanpoko eraginik gabeko laborari euskaldunengan nortasunaren gailurra aurkitzen dela iradokiz. Paisaia eta naturari buruzko artikuluetan, aldiz, egileak euskal paisaiaren baitan aurkitzen duen izkutuko lerdentasuna aldarrikatzen du, euskal izaeraren ederrarekin bat egiten duela nolabait iragarritz.

Aurreko guztiaren ondorioz eta ikuspegi erretorikotik esan dezakegu *docere* delako estrategiari eusten diola Manezaundik eta estrategia horrek bai demostrazioan, bai azalpen intelektualean dauka bere oinarria. Beraz, adimenari zuzentzen zaio hasiera batean, irakurlearen argumentazio-ganbara aberastu eta sendotzeko asmoz.

Bestalde, Manezaundiren berbaldian metahizkuntza zertzelada ugari ageri direla erakutsi da eta arrazoiak haxe da: irakurlearen adimenera ailegatu nahi du lehenengoz; izan ere, horrela bere bihotzera, bere alderdi afektibora ere ailegatuko baita. Arestian aipatutako *docere* strategiaren barruan, *argumentatio* eta *narratio* direlakoak txandakatu eta tartekatzen ditu. *Narratio* beharrezkoa da hainbat gertaera eta pertsonaia historikoren dibulgazioa egiteko, baina *argumentatio* delakoaren oinarria baizik ez da. *Argumentatio* hau aurrekoaren ondoriotzat aurkezten zaigu. Behin hainbat gai eta alderdiren inguruan argumentazioa finkatuz gero (soilik), *movere* delako strategiari eutsiko dio; izan ere, ez dira gutxi irakurleari edota hartzaileari zuzentzen dizkion apelazio, galdera erretoriko, hunkidurazko eta harridurazko esaldiak, betiere hartzaile euskaldunaren konplizidatea eta enpatia bilatu nahian, ahozko estiloan ohi denez. Hori guztia taxuketa dialogikoaren jarrera pean burutzen da, jakina, Axularrek bere prosazko testuetan ezarri zuen estiloari jarraiki, lan honetan frogatzen ahalegindu naizenez.

Manezaundiren artikulua-bilduma honen alderdi erretorikoei protagonismoa eskainiz gero, ahazten ahal zaigu testu literario baten aurrean gaudela. Hala da; izan ere, testuen komunikazio-funtzioak asko diren arren, funtzio poetikoaren ikutua prestente dagoelako han-hemen, bereziki adierazkortasunez beteriko hainbat esamoldetan edota herrikoi kutsuko konparazio, lokuizio eta adierazpideetan.

Bere garaiko semea izan zen Manezaundi, baina bere garaian bereizi egin zen euskara eta euskal nortasunaren aldeko jardunbide altruista batean. Gainera, ez edonola: arrazoiketa eta lan dibulgatibo erraldoia burutuz, eta herri kutsuko hizkera eta euskalkia literaturaren mailara jasoaz. Agian horregatik bere ondarea aztertzea izatea merezi du eta bere prosaren ekarpenetik etekin handiak ateratzeko tenorean gaude oraindik orain.

BIBLIOGRAFIA

- AINZIBURU, Angel; ETXARREN, Jean-Baptiste, *Luzaiden Gaindi*, Elkar, Donostia, 2002.
- ANTOÑANA, Marian, "P. F. Irigaray "Larreko"-ren obraren azterketa estilistikoa", in *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea, 1991, 58 zbkia., 207-226.
- "Fermin Irigarai "Larreko", Euskeraren maitale", in *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea, 1994, 66 zbkia., 337-348.
- "Enrike Zubiri «Manezaundi». Zenbait artikulu", in *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea, 1995, 68 zbkia., 337-361.
- BARANDIARAN, Asier (ed.), *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letretako argitalpen zerbitzua, Iruñea, 2007.
- BIDADOR, Joxemi, *Materiales para una Historia de la Literatura Vasca en Navarra*, Pamiela, Pamplona, 2004.
- , "Nafarroako euskal idazle handi bat: Manezaundi", in BARANDIARAN, Asier (ed.), *Euskarazko kazetaritza: gogoetak, esperientziak eta analisiak*, Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letretako argitalpen zerbitzua, Iruñea, 2007, 65-74.
- CAMINO, Iñaki, "Nafarroa Behereko euskara", in *Fontes Linguae Vasconum*, 2004, 445-486 orr.
- CHUECA, Josu, "El nacionalismo vasco y el euskera (1893-1936)", in JIMENO ARANGUREN, Roldán (ed.), *El euskera en tiempo de los euskaros*, Nafar Ateneoa & Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2000, 219-237.
- DÍEZ BORQUE, José María, *Comentario de textos literarios. Método y práctica*, Editorial Playor, Madrid, 1998 (22. edizioa. Lehenengo edizioa 1978an).
- ESCARPIT, Robert (translated by Ernes Pick), *Sociology of Literature*, Lake Erie College Studies, Painesville, Ohio, 1965.
- ESTÉBANEZ CALDERÓN, Demetrio, *Diccionario de términos literarios*, Alianza Editorial, Madrid, 1996.
- ETXEBARRIA, I.; ELORRIAGA, M. A.; ITURRATE, K.; KORTAZAR, J. M.; UNZUETA, K.; UNZUETA, L., *Euskal testuen azterbideak. Literatura II*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1985.
- FERNÁNDEZ DE LA MORA, Gonzalo: "El artículo como fragmento", in *El artículo (1905-1955)*, *Antología literaria de ABC*, Prensa Española, Madrid, 1955, VIII-IX orr.
- GUZMÁN, Eduardo de, "Periodismo en Madrid durante la guerra civil-la represión", in *Periodismo en los años veinte. Antología*, Cuadernos de Cultura Aragonesa, Zaragoza, 1984.
- IRIGARAY, Angel, *Prosistas navarros contemporáneos en lengua vasca*, Diputación Foral de Navarra & Institución Príncipe de Viana, Pamplona, 1958.
- IZAGIRRE, Koldo, *Euskal lokuzioak. Espainolezko eta frantsesezko gida-zerrendarekin*, Hordago, Donostia, 1981.
- KAMINO KAMINONDO, Peio; SALABERRI ZARATIEGI, Patxi; ZUBIRI, Juan José, "Luzaideko hizkera adierazkorra. 1. Sakreak", in *Fontes Linguae Vasconum*, 2004, 317-332 orr.
- KAMINO KAMINONDO, Peio; SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, *Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia, Iruñea, 2007.
- JAKOBSON, Roman, *The Framework of Language*, Michigan Studies in Humanities, Graduate School of University of Michigan, 1980.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán (ed.), *El euskera en tiempo de los euskaros*, Nafar Ateneoa & Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2000.
- KORTAZAR, Jon, *Diglosia eta euskal literatura*, Utrisque Vasconicae, Donostia, 2002.
- LARREA, Jose Maria; DIEZ DE ULZURRUN, Pedro, *Nafarroako Euskal Idazleak (I)*, Pamiela, Iruñea, 1987.
- LARREA, Jose Maria, *Nafarroako Euskal Idazleak (II)*, Pamiela, Iruñea, 1995.
- LEIZAOLA, Aitzpea, "«Hacerse francés». Nacionalidad y ciudadanía en el área fronteriza de Euskal Herria", in *Globalización, fronteras culturales y políticas y ciudadanía*, VIII Congreso de Antropología de la FAAEE, Santiago de Compostela, Asociación Galega de Antropología, 1999, 111-117.
- , "Muga: Border and Boundaries in the Basque Country", in *Europaea. Journal of Europeanists*, Cagliari (Italy), 1996, II, 91-101.
- LEÓN GROSS, Teodoro, *El artículo de opinión*, Ariel Comunicación, Madrid, Barcelona, 1996.
- MITXELENA, Luis, *Historia de la Literatura Vasca*, Erein, Donostia, 1988.

- PAGOLA, Rosa Miren, *Bidegileak. Enrike Zubiri Manezaundi (1868-1943)*, Servicio de Publicaciones del Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2003.
- , “Enrike Zubiri Gortadi «Manezaundi»”, in *Artikulu Bilduma* (ZUBIRI, 1990), 7-23 orr.
- SALABERRI MUÑO, Patxi, “Edergarri erretorikoak Axularren *Gero* liburuan”, in *Sancho el Sabio*, Vitoria-Gasteiz, 1998, 8. zbkia., 81-119.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi, “Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, in *Dialektologia gaiak*, Koldo Zuazo arg., Arabako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz, 2000, 221-259 orr.
- SANTAMARÍA SUÁREZ, Luisa; CASALS CARRO, María Jesús, *La opinión periodística. Argumentos y géneros para la persuasión*, Fragua, Madrid, 2000.
- SATRUSTEGI, Jose Maria, “Enrike Zubiri, «Manezaundi». Euskal idazle ospetsu baten ehun urte burua”, in *Zeruko Argia*, 1967-IX-29, 12. or.
- , “Luzaideko otoitz ttipiak”, in *Egan*, 1964, 19-31 orr.
- , “Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan”, in *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker-1, Euskaltzaindia, 1981, 343-354.
- , “Lesaka eta Luzaideko euskal testu parekatuak” in *Fontes Linguae Vasconum*, 1997, 99-126.
- SEARLE, J. R., *¿Qué es un Acto de Habla?*, Revista Teorema, Valencia, 1977.
- SPANG, Kurt, *Persuasión. Fundamentos de retórica*, Eunsa, Pamplona, 2005.
- STEIN, Jess (Editor in Chief), *The Random House Dictionary of the English Language*, Random House, New York, 1966.
- SWINGWOOD, Alan, “Introduction: Sociology and Literature”, in LAURESON, Diana T.; SWINGWOOD, Alan, *The Sociology of Literature*, Schocken Books, New York, 1972.
- TOTORICAGÜENA, Gloria, “Shrinking World, Expanding Diaspora: Globalization and Basque Diasporic Identity”, in *The Basque Diaspora. La Diaspora Vasca*, Edited by William A. DOUGLAS, Carmelo URZA, Linda WHITE and Joseba ZULAICA, Basque Studies Program & University of Nevada, Reno, 1999.
- VERDERBER, Rudolph F., *Communicate!*, Wadsworth Publishing Co., Belmont, California, 1993.
- VILARNOVO, A.; SÁNCHEZ, J. F., *Discurso, tipos de texto y comunicación*, EUNSA, Pamplona, 1992.
- ZAVALA, Antonio, *Bosquejo de una historia del bertsolarismo*, Auñamendi, San Sebastián, 1964.
- ZUAZO, Koldo, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia-San Sebastián, 2003.
- ZUBIRI, Enrike, *Artikulu bilduma*, Euskal Editorren Elkarte & Labayru Ikastegia, Bilbao, 1990.

KONTSULTATU ETA AIPATUTAKO WEB-GUNEAK

1. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/ManezaundiArtikuluak.htm>
1928-1936 urte bitartean Manezaundi euskaraz argitaratutako artikuluak ageri dira.
2. <http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00378.htm>
Egilea eta bere lanari buruz idatzi diren zenbait erreseina ageri dira, bai eta bere artikuluak kontsultatu ahal izateko zenbait esteka.
3. http://www.cfnabarra.es/estadistica/agregados/poblacion/censos_padron
Nafarroako herrien erroldatze-datuak ageri dira bertan.

LABURPENA

Manezaundiren kazetaritza: bere berbaldiaren azterketa

Enrike Zubiri *Manezaundi*, margolaria izateaz gain, kazetaritzan aritu zen eta lan ugari utzi zituen idatzita, bai euskaraz, bai gazteleraz. Azterketa honetan *Manezaundiren* euskaraz idatzitako ekoizpena aztertu nahi da erretorikaren ikuspuntutik. Egileak testuetan agertzen duen jarrera eta berorren bidez agertu nahi dituen balioak eta pertsuasio jokabideak ere azaleratu eta etsaminatu nahi izan dira. Arreta berezia eskaini izan zaie pertsuasio erretorikarako lagungarriak diren estrategiei: *delectare*, *movere* eta *docere* (azken honen barruan *narratioa* eta *argumentatio* direlakoak). Bestalde, corpuseko testuen formaren analisirako aurreneko pauso bat eskaintzen da hemen, bai eta testuok gizartearekiko duten harremana aztertzen duen atal bat ere, hori guztia geroagoko azterketarako baliagarria izanen delakoan.

RESUMEN

Periodismo de Manezaundi: análisis de su discurso

Enrike Zubiri *Manezaundi*, además de ser un conocido pintor pamplonés, dejó un amplio corpus escrito en forma de artículos periodísticos tanto en castellano como en euskera. En este artículo se pretende analizar la producción en euskera de *Manezaundi* desde un punto de vista retórico. La postura que el autor muestra a través de sus textos, los valores que transmite y sus estrategias persuasivas son también objeto de estudio. De modo transversal también se les ha dedicado atención a las siguientes estrategias para la persuasión retórica: *delectare*, *movere* y *docere* (dentro de esta última, la *narratio* y la *argumentatio*). Por otra parte, se presenta aquí el primer paso de un análisis formal de su obra, así como un breve estudio de la interacción entre sus textos y la situación social de cuando fueron publicados, con objeto de que todo ello sirva para un análisis posterior más global.

RÉSUMÉ

Journalisme de Manezaundi: analyse de son discours

Enrike Zubiri *Manezaundi*, a non seulement été un peintre de Pampelune très connu, mais il nous a aussi laissé un vaste corpus écrit sous forme d'articles journalistiques, aussi bien en espagnol qu'en basque. Dans cet article, nous allons analyser la production en basque de *Manezaundi* d'un point de vue rhétorique. La posture de l'auteur montre à travers ses textes, les valeurs qu'il transmet et ses stratégies persuasives font aussi l'objet de l'étude. On a aussi prêté attention, de façon transversale, aux stratégies suivantes pour la persuasion rhétorique: *delectare*, *movere* et *docere* (dans cette dernière, la *narratio* et la *argumentatio*). D'autre part, nous avons ici le premier pas d'une analyse formelle de son oeuvre, ainsi qu'une brève étude de l'interaction entre ses textes et la situation sociale du moment où elles ont été publiées, afin que tout cela serve pour une analyse d'ensemble ultérieure.

ABSTRACT

Manezaundi's Journalism: analysis of his discourse

In addition to being a well-known Pamplona-born painter, Enrike Zubiri, *Manezaundi*, also left a large body of written work in the form of press articles in both Castilian and Basque. This article aims to analyse *Manezaundi's* output in Basque from a rhetorical perspective. The posture which the author reveals through his texts, the values he transmits and his strategies of persuasion are the subject of study as well. Attention has also been paid throughout

to the following strategies of rhetorical persuasion: *delectare*, *movere* and *docere* (*narratio* and *argumentatio* within the latter). A first step towards a formal analysis of his work and a brief study of interaction between his texts and the social situation in which they were published are presented here in order that, together, they may serve as a basis for a later, more comprehensive analysis.

